

Goienkaria

2010eko uztailaren 23a > Egubakoitza > X. urtea > 431. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Alderdi ikonoklasta da gurea eta jende berri asko hurbiltzen ari zaigu"

Iñaki Galdos
Hamaikabateko presidentea > 08



ARRASATE
Garibaitik Markuleterainoko oinezkoendako bidea nahi dute > 12

BERGARA
Udalak bere gain hartu du kale-garbitzeta zerbitzua > 16

ARETXABALETA
Copreci lantegiaren handitzea onartu du Foru Aldundiak > 22

ANTZUOLA
Pietateko erretaula herrira ekarriko dute > 25

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Arrasateko saihesbidea irekiko dute bihar, oinezkoek ikusteko

ASTEBURUAN Oinezkoendako eta txirrindulariendako egongo da zabalik, instalazioak ikusi eta galtzada estreina dezaten

INAUGURAZIOA Ibilgailuentzat astelehenean zabalduko dute, eta Arrasateko kaleetatik ibilgailu ugari aterako ditu

LUZERA Mugarriko zubian hasi eta Markuleteraino bi km-ko luzera du; tartean Olandixoko tunela dago (860 m) > 04

JENDARTEA > JAIK

Mundumira Elgetan egingo dute

Alkateak esan du irailen dei egingo dietela herritarrei antolaketan laguntzeko > 05

G2a

San Frantzisko Borjako Oñatin egon zenekoa

San Frantzisko Borjakoaren jaiotzaren 500. urteurrenaren harira, santua Oñatiko Santxolopeztegi auzoan bizi izan zeneko garaiari buruzko liburua aurkeztu dute asteon. Jose Antonio Azpiazuk idatzi du liburua eta itzultze lanez Jerardo Elortza arduratu da.

Santxolopeztegin bi urte eskas egin bazituen ere, auzotarrek gogoan izan dute beti, eta, hori dela-eta, dirua jarri, eta fraidearen egonaldia gogorarazteko liburua enkargatu zieten bi historialariei. > 31



EGILEAK Jose Antonio Azpiazu eta Jerardo Elortza Madalenako ermitan, San Frantzisko Borjakoaren irudia erdian dutela.

MIRIAN BITERI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

AZPIEGITURAK > AHT

AHTren aurkako kanpaldia

Antzuolan egingo dute astelehenean hasi eta abuztuaren 1era, Asanbladak deituta > 04

OSASUNA > ABORTUAREN LEGE BERRIA

Ohiko emaginak bideratuko ditu borondatezko abortuak

Debagoieneko Ospitalean orain arteko egoeretan bakarrik egingo dituzte abortuak -14. astetik 22. astera, eta 1985eko legeak onartzen zituen hiru egoeretan-, baina haurdunaldiaren 14. astea baino lehenagoko abortu eskaerak hasi da bideratzen, uztailaren 5ean Espainiako Gorteek onartu

zuten legea beteta. Horrela bada, 14. astea baino lehenago abortatu nahi duen edozein emakumek bere ohiko emaginarengana jo beharko du, eta hark emango dio informazio guztia; hiru eguneko epea eta gero, abortua egitea erabakitzen badu, klinika pribatu batera bideratuko dute. > 02-03



Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 25era arte. Hala, GOIENKARIAren hurrengo zenbakia irailaren 3an argitaratuko dugu. Asteleheneko Goienkaria-ren opor aurreko azken zenbakia hila-ren 26an kaleratuko dugu.

OSASUNA > ABORTUAREN LEGE BERRIA

Debagoieneko sare publikoak bideratuko ditu borondatezko abortuak

EMAGINA Haurdunaldiaren 14. astea baino lehen abortatu nahi duenak emaginarengana jo beharko du eskaera egiteko

OSPITALEA Debagoieneko Ospitalean orain arte bezala jarraituko dute: 14.etik 22. astera arteko abortuak soilik egiten

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Abortuaren legeak ekarri dituen berrikuntzek ez dute bistako eraginik izango Debagoieneko Ospitalean; han orain arte bezala jarraituko dute abortuak egiten, orain arte izan dugun 1985eko abortuaren legeak ontzat ematen zituen egoeretan, hau da: bakarrik haurdunaldiaren 14. astetik aurrera, eta 22. astera arte, emakumearen bizitza edo osasuna arriskuan baldin badaude haurdunaldiarenatik edo fetuak arazo larriak baldin baditu; eta 22. astea pasatu eta gero, bakarrik fetuari gaitortasun larri eta sendaezinen bat antzematen badiote, edo jaiotzean heriotza eragin dezakeen arazoren bat dagoenean.

Hala ere, Debagoieneko osasun publiko sareak hartzen ditu, uztailaren 5az geroztik, 14. astea baino lehenago abortatu nahi duten emakumeen ebakuntza egiteko eskaerak. Debagoieneko sare publikoko zentroetan egin ez dira abortuak egingo, baina bai bideratu. Horretarako, Osasun Sailak Euskadiko zazpi klinikarekin ituna dauka: bi Donostian, lau Bilbon eta bat Gasteizen.

Osasun Sailak legea indarrean sartu eta hasierako 15 eguneko datuak jakinarazi ditu: 93 emakumek abortatu dute hasierako 14 asten barruan, eta 177 emakume informatu dituzte zerbitzu berriaz.

Osakidetzako emaginarengana edo ginekologorengana 78 emakume joan dira kontsulta egitera, eta horietatik 49k abortatu dute itundutako zazpi zentroetako baten. Sare pribatura jo dute 99 emakumek informazio bila, eta horietatik 44k abortatu dute.

Emaginak gutun-azal baten emango dio eskatzaileari informazio guztia; hiru egunen buruan egin ahal izango du ebakuntza

Abortua egin diezaioten nahi duena klinika pribatu batera bideratuko dute, eta Osakidetzak ordainduko du

Debagoieneko Ospitaleko Alaitz Pagaldai ginekologoa elkarriketatu du Aitziber Aranburuzabalak Arrasate Irratian. Alaitz Pagaldaien iritziz, "ondo etorri da lege berria". Eta hauxe gaineratzen du: "Niretako, emakumeak abortatzeko aukera ematea, eta hori subentzionatuta egotea ondo dago. Ez da horregatik abortu gehiago edo gutxiago egingo; beste aukera bat da. Horrek ekarriko du abortuak modu kontrolatuagoan, ondo egiten, legearen barruan".

KONFIDENTZIALTASUNA

Haurdunaldiaren 14. astea baino lehenago abortatu nahi duenak bere ohiko emaginarengana jo beharko du eta eskaera egin; betiere, gutxienez 16 urte baldin baditu. Ez du azalpenik eman behar izango edo mediku edo bestelako ziurtagiririk beharko. Emaginak datu pertsonalak hartuko dizkio, Gizarte Segurantzak ebakuntza ordain dezan.

Ñabardura bat badago: eskatzaileak 16 edo 17 urte dituenan, bere legezko ordezkari batek ere sinatu behar du oniritzia, baldin eta horrek arazoak ekartzen ez badizkio gazteari –koakzioa, tratu txarrak, e.a.–; bestalde, baliteke emagin edo mediku jakin horrek bere gain hartu nahi ez izatea gazte horren heldutasuna baloratzeko erantzukizuna. Orduan, gizarte laguntzaile bati eskatuko dio heldutasun hori ziurta dezan.

Kasu baten zein bestean, emaginak gutun-azal itxi bat emango dio abortua eskatu duenari. Gutun-azalean bi motatako informazioa topatuko du: asmo horretan atzera egiten badu, haurdun dauden emakumeek eta umeak izan dituztenek eska ditzaketen laguntza publikoen eta kontrazepzioaren gainekoa; eta, abortua egitea erabakitzen baldin badu, non egin dezakeen. Izan ere, lege berriak hiru eguneko derrigorrezko epea ezartzen du emaginak gutun-azal hori ematen duenetik abortua egin daitekeen arte. Horren atzean dagoen helburua da gogoeta-epe bat ematea emakumeak, abortua egin nahi duela ziur egon dadin. Epe hori derrigorrezkoa da.

Epea bukatzen denean, Osakidetzak deitu egingo dio, eta abortuarekin aurrera egitea era-



Miren Arrizabalaga ginekologoa, Arrasateko anbulatorioko kontsultategian.

DATUA

14

ASTEREN BARRUAN

Orain arte, haurdunaldiaren 14. astetik 22.era arte bakarrik egin zitekeen abortua; orain, 14. astera arte, emakumeak Osakidetzari eskatu ahal izango dio abortua egitea, azalpenik eman gabe.

16

URTE

Abortua eskatzeko gutxieneko adina 16 urte izango da. 16 eta 17 urte artekoak guraso edo tutoreari jakinaraztera behar-tzen ditu legeak, jakinarazteak adingabeari arriskua ekartzen badio izan ezik.

93

EMAKUME

Legearen lehenengo 15 egunean, Euskadin 93 emakumek abortatu dute lehenengo 14 asteetan; horietatik 49 Osasun Sailak ordaindu ditu, eta 44 ebakuntza norberak ordaindutakoak izan dira.

baki badu, itundutako ze zentro-ra joan iradokiko dio. Hala ere, eskatzaileak beti aukera dezake itundutako zentro horietako beste bat.

Emaginarekin egoteko, bestalde, emakumeak ohi bezala eskatu beharko du txanda.

Gizarte Segurantzaren erregistroan ere, eskatzaile guztien datuak kodifikatuta egongo dira, pribatutasuna gordetzeko eta errespetatzeko.

ERRAZTASUN GUZTIAK

Pagaldaik gogorarazten du Osakidetzako ospitaleetan "lehen bezala jarraituko" dutela, hau da, 1985eko legeak ezartzen dituen hiru egoeretan bakarrik egin ahal izango dituztela abortuak. Baina aldea badago: "Haurdunaldiaren 14. astea baino lehenago abortuetan, ez da azalpenik eman behar; edozeinek abortatu dezake. Debagoieneko Ospitalean lehenengo hiru kasuetan egingo dugu abortua, baina kasu horietan medikuak justifikatu egin behar du abortuaren beharra".

14. astetik 22.era, emakumearen osasuna –osasun psikologikoa barne– edo bizitza arriskuan badaude edo fetuak arazo larriak baditu egin daiteke abortua, lehen bezala. Horren barruan sartzen da ere haurdunaldia bortxaketa baten ondorioz denean abortatu nahi izatea.



LEIRE KORTABARRIA

Bestalde, haurdunaldiaren 22. astea bete eta gero, eta mugaperik gabe, bakar-bakarrik fetuak bizi izateko arazoak baldin baditu edo gaixotasun oso larri eta sendaezinen bat antze-

maten badiote. Kasu horretan, batzorde mediku-etiko batek konfirmatu behar du egoera hori dela. Alaitz Pagaldaik dioenez, 14. astetik aurrerako kasu guztietan, medikuek gauza bat edo bes-

tea aholkatuta ere, "emakumeak dauka azken hitza". Bere esperientziaren arabera, "abortu kasu gehienak izaten dira umea gaizki datorrelako, eta kasu horietan, jendeak ez du zalantzarik iza-

LABUR

> **ZE ARAU DA?**

Haurdunaldiaren borondatezko etenaren eta sexu eta ugalketa osasunaren lege organikoa da, Espainiako Gorteek onartua. 1985eko legea aldatzen du. Hego Euskal Herri osoan du eragina.

> **ZEINTZUK DIRA ALDAKETAK?**

Berritasun nagusia da haurdunaldiaren 14. astera arte abortua eskatu ahal izango duela 16 urtetik gorako edozein haurdunek, inolako azalpen edo agiririk gabe.

> **BAIMENA BEHARKO DA?**

Adingabeok ez dute baimenik behar, baina guraso edo tutore bati haurdunaldiaren berri eman beharko diote, jakinarazpenak

adingabeokari kalte larriak ekarri diezazkiokeela oinarri sendoekin adierazten denean izan ezik.

> **ZEINEK ORDAINDUKO DU?**

Abortua Gizarte Segurantzak ordainduko du, eta berak egin edo bideratuko du, sare publikoko zentroetan ez bada, itunpeko kliniketan edo erkidegotik kanpo.

> **ETA 14. ASTETIK AUERRERA?**

14. astetik 22.era arte abortatu daiteke emakumea arriskuan dagoenean edo fetuak arazo larriak dituenean; 22.etik aurrera, fetuak gaixotasun larri eta sendaezina, edo jaiotzean heriotza eragin dezakeen arazoren bat dagoenean.

ten". Hauxe gaineratzen du: "Horrelako haurdunaldi gutxi ikusi ditut bukatzen direnik".

Era berean, "emakumeei erraztasun guztiak ematen saiatzen" direla esaten du ginekologo horrek, eta ahalik eta lasterren ebakuntza egiten saiatzen dira.

Bestalde, pertsona moduan psikologikoki laguntzen ere ahalgintzen dira ospitalean, nahiz eta berez zerbitzu psikologikorik ez dagoen hain justu abortatu gura dutenendako: "Animua ematen, pertsona moduan laguntzen diegu, baina zerbitzu gisa ez dugu hainbeste lantzen alderdi hori. Neu nire arrazoiak, nire esperientziak... ematen saiatzen naiz, modu pertsonalean, eta emakumeak berak topatzen du behar duena". Beste ospitale batzuetan badaude zerbitzu psikologikoak abortatu behar duten emakumeendako.

Pagaldaren lankide Miren Arrizabalaga ginekologoak hauxe dio: "Psikologikoki osatzeak beti luzeago jotzen du. Hala ere, emakume bakoitza desberdina da: batzuek luzaroan izaten dute hori gogoan, bizi osorako, batzuek; beste batzuek errazago gainditzen dute eta beste etapa bat hasten dute".

Berez, abortuaren lege berri hori epeen lege bat da, eta ez du abortuaren inguruko beste alderdirik arautzen. Horregatik, legeak ere ez ditu zentroak behartzen arreta psikologikoa ematera. Hala ere, abortua izan behar duen emakumeak eskatuz gero, arreta psikologikoa jaso dezakeen helbide batzuk eman beharko dizkiote.

EBAKUNTZA BAT DA

Abortu batetik, normalean, emakumeak agudo osatzen dira: egun bateko kontua izaten da, dena ondo badao; baina abortua ebakuntza bat da, azken baten. Alaitz Pagaldaik esaten duenez, "abortatzeak badakar arriskua, interbentzio bat delako. Anestesia bat dago, umetokia garbitu behar da, eta zulaketak, infekzioak, hemorragiak eta antzekoak egon daitezke. Horregatik ere, behin abortatu duenak badaki zer den hori, eta kontu handia izango du berriz ere gauza bera ez gertatzeko". Horregatik beragatik, Pagaldaren iritziz, lege berrian ez da norberak egin ditzakeen gehieneko abortu kopururik ipini.

Ginekologoaren esanetan, "abortu bat izan duenak ez du zertan arazorik izan aurrerago haurdun geratu nahi badu. Abortu asko izanez gero, gerta daiteke umetokia inplantaziorako ondo ez geratzea; hori geratzen da legratu asko egin izan badizkiote. Baina oso arraroa da".

GEHIEN, 20-35 URTE ARTEAN

Osakidetzaren 2008. urteko datuek esaten dute abortu gehien 25 eta 29 urte artekoek eskatu zituztela: Euskadin, 751 abortu egin ziren Osakidetzak bideratuta adin tarte horretan. Bigarren multzoa 20 eta 24 urte artekoena izan zen, 670 aborturekin.

Debagoieneko Ospitaleko arduradunek zabaldu egiten dute, euren esperientziaren arabera, abortu gehien izaten dituzten emakumeen adin tarte: 20 urtetik 35 urtera artekoek eskatu izan dute gehien.

Miren Arrizabalaga > Debagoieneko Ospitaleko ginekologoa

"Gazteak izanda ere, eurek erabakitzen dute"

L.K. > ARRASATE

Debagoieneko Ospitalean dihardu Miren Arrizabalaga ginekologoak. Bere esanetan, "legea oraindik onartu berria dago, baina honezkero dena antolatuta dago".

Abortua egin diezaioten gura duenak zer jakin behar du?

Emaginarena joan behar duela lehenengo eta behin. Izan ere, 14 aste baino lehenago egin gura izaten dutenak ginekologok ez ditugu ikusten, zuzenean emaginak bideratzen dituelako.

Debagoienean zelan egingo dira abortuak?

Legearen 15. artikulua arautzen dituenak, hau da, orain arte egin izan dugun bezala: labur esanda, umea gaizki badator, ama arriskuan badago edo bortxaketa baten ondorio denean haurdunaldia. Haurdunaldiaren 22. astera arte egin daitezkeenak egingo ditugu.



GOIENKARIA

Ze informazio mota emango du emaginak?

Gutunazal itxi bat emango dio, informazio guztiarekin. Gutunazal hori isilpekoa da, konfidentziala. Gero, gutxieneko hiru eguneko gogoeta epea hasiko da, eta epe

horri derrigorrezkoa da. Epea pasatuta, abortua izatea aukeratzen badu, Osakidetzarekin ituna duen klinika batera bideratuko dute.

Izan dira borondatezko abortua delakoa eskatu dutenik dagoeneko?

Bai, kasu batzuk izan dira.

Badirudi lege berri samarra izan arren, jendea ondo informatuta dagoela...

Norbait haurdun dagoenean, beti informazio bila joaten da, eta horretarako gehienok zuzenean emaginarengana jotzen dute.

Zuk zeuk ikusi izan dituzun kasuak zelakoak izan dira?

Neska gazteen kasuan, norberak erabaki izan du. Denetarik dago: batzuek hasieratik oso garbi izaten dute erabakia, oso helduak dira; beste batzuk, gutxiago. Baina, azken baten, berak erabakitzen du.

LORAMENDI
50%
INTERSPORT® Arrasate

AZPIEGITURAK > OLANDIXOKO TUNELA

Asteburuan zabalik egongo da Olandixoko tunela publikora

Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide zaharra eta Aramaioko errepidea lotuko ditu saihsbide berriak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Arrasateko mendebaldeko saihsbidea bihar eta etzi zabalik egongo da publikoarendako. Oinezkoek eta txirindulariek errepidearen instalazioak eta gatzada estreinatzeak aukera izango dute; zapatuan zabalduko dute

tunela 10:00etatik 21:00etara; eta domekan zabalik egongo da goiz partean, 10:00etatik 15:00etara.

ASTELEHENEAN ESTREINATUKO DA Aste bukaeran oinezkoendako eta txirindulariendako izango da; eta, astelehenean autoendako estreinatuko dute mendebaldeko saihsbidea.

Bi kilometroko luzera duen errepide berri horrek Arrasateko zirkulazioa arintzeko balioko du. Izan ere, egunero Aramaio-ra doan errepidea (GI-2620) hartzen duten milaka ibilgailu atarako ditu Arrasateko kaleetatik azpiegitura berri horrek.

BI KILOMETROKO ERREPIDEA

Mendebaldeko saihsbideak Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide zaharra eta Aramaio-ra doan errepidea lotzen ditu. Saihsbidea Mugarriko zubia- ren ondoan egin duten biribilgunean hasten da, Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan. Bi kilometro luzeko errepidea da mendebaldeko saihsbidea; eta tartean du Olandixoko tunela. Tunelak 860 metroko luzera dauka eta Gipuzkoako bide sareko bi noranzkoko tunelik luzeena da. Hori kontuan hartuta -bi noranzkoko tunela dela-, segurtasun eta kontrol sistema modernoak

jarri dizkiote. Eta, larrialdi kasuetarako, pertsonak irteteko galeria bat dauka tunelak.

Tunelaren irteeran, saihsbideak Aramaio ibaia zeharkatzen du zubi berri baten bidez; gero, bideak jarraitu egiten du egungo GI-2620 errepidera iritsi arte.

Gainera, tunelaren bi ahoetan biribilguneak egin dituzte.

100 LAGUN IBILI DIRA LANEAN

Hiru txandatan banatuta 100 langile inguru ibili dira lanean errepideko lanak ahalik eta azkarren amaitzeko, Oscar Rekalde Bidegiko komunikazio arduradunak azaldu duenez.

DATUAK

Mendebaldeko saihsbideko datuak

> Arrasateko mendebaldeko saihsbideak bi kilometro luze izango ditu.

> Saihsbide berriaren egin dute Gipuzkoako bide sareko bi noranzkoko tunelik luzeena: Olandixoko tunelak 860 metro ditu.

> Olandixoko tunelak %2,50eko malda izango du.

> Saihsbideko lanak 2008ko udan hasi zituzten. Uztail hasieran inauguratzekoak ziren, baina atzeratu egin dute eta uztailaren 26an izango da errepidearen inaugurazioa.

> 41,3 milioi euroko inbertsioa izan da; horietatik zati handi bat tunela egiteko erabili dute: 27 milioi euro.



Olandixoko tunelaren ahoetako bat.

ARANTZAZU EZKIBEL

AZPIEGITURAK > MOBILIZAZIOAK

AHTren aurkako kanpaldia egingo dute Antzuolan

Uztailaren 26tik abuztuaren 1era egingo da kanpaldia; besteak beste, zapatuan, hilaren 31n manifestazioa egingo dute Bergarako obretara

A.E. > ANTZUOLA

Abiadura Handiko Trenaren aurka egingo dute datorren astean; horretarako, kanpaldia deitu dute Antzuolan. Uztailaren 26an, astelehena, hasiko da eta abuztuaren 1era arte iraungo du. Ez da lehenengo aldian AHTren kontrako kanpaldia Debagoiengan egin dena; duela hiru urte Aramaion egin zuten.

Diskurtso kritikoa landuko dute kanpaldian: eztabaidak, tailerrak, protesta eta informazio ekintzak, eta musika eta antzer-

ki ikuskizunak bultzatuko dituzte, besteak beste. Ekintzen artean nabarmentzekoa da Bergaran egingo duten manifestazioa.

LANAK IKUSTERA JOANGO DIRA

Uztailaren 31n, 17:30ean, Bergarako San Martin plazatik irten da manifestazioa egingo dute AHTren obretara, Ipiñarri baserri gainera. Modu horretan, Debagoieneko bailaran eta konkretuki Bergaran hasi berri dituzten obrak eragiten ari diren txikizioa bertatik bertara ikusteko auke-

ra egongo dela nabarmendu dute antolatzaileek.

"AHTren aurka aritzea, gure ustez, defendatzen dugun bizi ereduaren alde borrokatzea ere bada", adierazi du Hilario Manzanedok, AHTren Kontrako Asanbladaren izenean. Asanbladatik zehaztu dute, era berean, AHTren kontrako kanpaldia azken urteotan Euskal herrian egin edo planteatu diren beste azpiegitura handien kontra ere badela.

KANPALDIA LASKURAIN HANDIN

Ekintza gehienak Antzuolan bertan izango dira, besteak beste, Torresoroan eta Zurrategi plazan. Bisita gidatuak ere antolatu dituzte nekazaritza ekologikoa egiten duten herriko bi baserrietara.

Kanpaldia bera Antzuolako Laskurain Handi baserriko zelaietan egingo dute. Bertan kanpatzen dutenek Lapatza eta Pikunietako baserrietako barazki, fruitu, esne eta bestelako produktu ekologikoak kontsumituko dituzte, Asanbladatik proposatzen duten gizarte eredu aldaketaren erakusgarri. "Eredu kapitalistaren aurrean beste ere-

du mota batzuk proposatzen ditugu; eta gune hau eredu horiek modu ahalik eta koherenteen aurrera eramateko modua da", dio Manzanedok. Parte hartzeko dei egin dute.

DATUA

15

EDIZIO

Aurtengo kanpaldia AHTren aurkako 15. kanpaldia izango da. Uztail bukaeran egin den kanpaldia izaten da; orain arte, beste behin egin da ibarrean.

ESANAK

"AHTren kontra aritzea, gure ustez, defendatzen dugun bizi ereduaren alde borrokatzea da"

Hilario Manzanedo > AHTren Kontrako Asanbladako kidea

HEZKUNTZA

Kudeaketa arloko masterra hasiko dute

A.E. >

Mondragon Unibertsitateak eta Innobasquek *Enpresa berrikuntza eta proiektu zuzendaritza* masterra martxan jarriko dute ikasturte berrietik aurrera. Euskal Herrian bakarria izango den master hori irailean hasiko da Innobasquek Zamudioko Parke Teknologikoan duen instalazioan. Masterrean 20 lagunendako lekua dago.

HELBURUA ARGIA DA

Helburua da enpresetako etorkizuneko zuzendariak prestakuntza eskaintzea berrikuntzan eta proiektuen kudeaketan; hau da, etorkizuna eta lan-merkatu zabala duen esparruan.

JENDARTEA > JAIK

Mundumira jaia Elgetan egingo dute datorren urteko maiatzaren 21ean eta 22an

Elgetarrendako erronka handia izango dela esan du Erostarbe alkateak eta irailean herritarrei dei egingo dietela antolaketan parte hartzeko

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Elgetan ospatuko dute datorren urtean Mundumira jaialdia. Hala ere erabaki du oraingo astean Mankomunitateko gobernu batzordeak. Maiatzaren 21ean eta 22an ospatuko da munduko kulturen jaia. Oxel Erostarbe Elgetako alkateak bere blogean idatzi duenez, "erronka handia" izango da "elgetarrendako" jai hori antolatzea eta aurreratu du irailean hasiko direla hura antolatzen, eta herritarrei dei egingo dietela antolaketan parte hartzeko.

Ekitaldi nagusiak plazan antolatuko dituzte eta dagoeneko aurreikuspen batzuk egiten hasiak dira Elgetako Udalean: kaleko zein espaziotan zer koka daitekeen, zein kale itxiko dituzten edo non kokatuko dituzten aparkalekuak. Baina horiek guztiak zehazten joango dira irailetik aurrera herritarrekin batera.

ANTZUOLAN 20.000 LAGUN

Mundumira jaia Arrasaten antolatuko zuten lehenengo aldiz 2005ean. Ondoren ospatu da urtez urte Debagoieneko herrietan: Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Antzuolan. Aretxabaleta eta Bergarako izan ziren, bereziki, arrakastatsuak; jaialdia egonkortu eta bailaratik kanpo ezagun egiten hasi zen.



Labean erretako patatak jaten Antzuolako Mundumiran aurten.

JULIO CALLEJA

Aurtengo maiatzaren 29an eta 30ean Antzuolan egindakoa ere arrakastatsua izan da, kontuan izanda, gainera, erronka handia zela, herri txiki batean antolatzen lehen aldia zelako. 20.000 lagun elkartu ziren Mundumiran Antzuolan bi egunetan.

110.000 EUROKO AURREKONTUA

Iaz eztabaidak izan zituzten Mankomunitatean, ereduaren inguruan batik bat, eta kolokan izan zen Mundumira jaia. Azkenean, erabaki zuten aurrera egitea. Ereduearen gainean hausnarketa egin ostean, hala ere: herrikoia goa eta herriko elkarten parte hartze handiago eta zuzenagoa-

rekin egitea erabaki zuten. Ideia horri eutsiz antolatu dute Antzuolan. Aurtengo edizioaren beste berri bat izan da jaia hiru eguneko izatetik bi eguneko izatera pasa dela. Datorren urtean Elgetan egingo dena ere bi eguneko izango da. Batik bat, krisiagatik murriztu dituzte jaieguna, eta, ondorioz, aurrekontua. Mundumiraren aurrekontua 109.958 euro izan da aurten. %42 Debagoieneko udalek ordaindu dute eta gainerakoa beste erakunde publiko eta babesle pribatu batzuek: %34 jarri du Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta %24 Ternuak, Euskaltelek...

INGURUMENA > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Mankomunitateko enplegu tailerrekoek bi instalazio fotovoltaiko jarri dituzte

Arrasateko Bedoñabe herri eskolan eta Akeiko biltegian, Meatzerreka auzoan, daude

T. MADINA / M. BITERI > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak abiarazitako enplegu tailerrek emaitzak ematen hasi dira. Lehenengo fasean energia berriztagarrien oinarriak ikasi ostean, bigarrenean ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izan dute energia berriztagarrien tailerreko ikasleek. Hala, Arrasateko Bedoñabe eskolan eta Mankomunitateak

Meatzerrekan dituen instalazioetan 230 wattoko 24 plaka dituzten bi instalazio fotovoltaiko jarri dituzte. Urtero, batez beste, 4.975 kilowatt sortzea aurreikusten dute, epe horretan bi etxebizitzak kontsumitzen dutena.

HAMAR IKASLE

Urrian hasi zen Mankomunitateak eta Inemek bultzatu eta Eki-

termik enpresarekin elkarlanean antolatutako enplegu tailerra. Energia berriztagarriak izan dira horren ardatz eta parte hartu duten hamar ikasleek eguzki instalakuntza fotovoltaiko eta termikoen muntaia eta mantenua ikasi dute. 25 urtetik gorako langabeei zuzendutako tailerra izan da hori.

Ikasle horien lana ez da bi instalazio horietara mugatu; tailerra urrian amaituko da eta dagoeneko beste instalazio batzuk egin dituzte. Tartean, Elgetako herri eskolan energia-eraginkortasuna hobetzeko egokitzapen batzuk egin dituzte, eta Eskoriatzako eta Oñatiko eraikin banatan zoru bero-emaileak ipini dituzte. Bestalde, gaur bertan ziren hastekoak Eskoriatzako argiteriaren eraginkortasuna hobetzeko argiak jartzen.

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > iarantzabal@goiena.com'

Kultura bor-bor bertatik bertara, Elorrion

Horixe igarri dut gure mugek ondo-ondoko herrian, kultura bor-bor dagoela. Mundumira izan daiteke gehien gerturatzen zaiona Debagoienean Elorrioko Musikaireri, baina ez, oraindik asko daukagu ikasteko. Eskoriatzako Errekan Gora ere baliteke antzerako helburuekin sortu izana, baina anaia txikia da oraindik, behinik behin. Musikairek aire freskoa du, egiten dakien jendea dago, argi daude urtetako eskarmentuekin garatutako ideiak, argi dago zer gura den kontatu eta zelan zaindu behar diren ekitaldi guzti-guztiak, badakite atea zabalik dituen plazak direla kulturarako berreskuratu gura dituztenak. Inbidia sana ematen du kulturatik pentsatutako ekitaldi sorta honek. Gustatzen zait dozena ekitaldi egun gutxitan kontzentratu beharrean hilabete zehar programatzea (jaien estiloa barik kultura programazioa dago atzean). Polita euskaratik pentsatu eta munduko artistak izatea oinarri: Aziza Brahim, Ruper Ordorika, Joni Zenet, Anari... Mundu bat irudikatzen da eta herri bat erakutsi. Herriko paraje ezkuatuak ere publiko egin, argiztapenarekin zaindu, erosotasuna eta soinu ona bermatu...

"Ateak zabalik dituen plazak dira kulturarako berreskuratu beharrekoak"

Antolatzaile profesionalak eta amaponteko onak elkarlanean: enpresa pribatuak, batetik; erakunde publikoak, bestetik. Jasotzaile eta hein baten eragile, berriz: herria. Herritarrek eta mugako herritarrok, hau zortea!

> EAE-n 15.000 musika ekitalditik gora antolatzen dira urtero-urtero. Euskal Herriko taldeak izaten dira hirutik bat baino gehiago. Eta ez dagoela eskaintzarik esango dugu, baina ez dagoena da zaindutako eskaintzarik, ze kultura ez da txurroak egitea.

> Ordorika izan zen aurreko astean munduko musikaria Elorrioko plazan. Jendetza handia ikusten eta emanaldi ona. Artista segurua Musikaireako. Eta euskara ere segurua da produktua landua dagoenean. Ondo sortua eta ondo garatua.

TURISMOA > BASQUETOIR

'Anfitriones' proiektua Arrasaten izango da

Kalitatea eta lehiakortasun maila hobetzeko ikastaroa antolatu dute

M.B. > ARRASATE

Oporren ostean iritsiko da Debagoieneko turismoaren euskal agentzia Basquetourrek antolatutako *Anfitriones* izeneko proiektua. Profesional pribatu zein publikoei zerbitzuaren kalitatea hobetzeko tresnak eskaintzeko hamar ikastaroz osatuta dago egitasmo hori, eta horietara

ko bat Arrasaten izango da. Interesatuek izena eman behar dute uztailaren 30a baino lehen, Debagoieneko Mankomunitatean, 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakietan edo turismo@debagoiena.net helbidean.

FINANTZATUTA

Plan horrek bi atal izango ditu: bata, zuzendariei eta erdi mailako arduradunei zuzenduta; eta bestea, bezeroekin harreman zuzena dutenei. Basquetourrek %100ean finantzatutako lau orduko iraupena duten ikastaroak dira.



zabalik

Estepan Plazaola

Sentimenduak

Aurtengo ekainaren 30ean, Errealak fitxatu berritan, elkarriketa egin zioten Euskadi Irratian Joseba Llorenteri eta, besteak beste, Munduko Futbol Txapelketari buruz ere jardun zuten. Brasilen jokoa gustatzen zitzaioela esan zuen eta Espainiak irabaztea sorpresa izango zela, baina berari gustatuko litzaikeela "Uruguaiak sorpresa ematea", hango selekzioan bi lagun zituelako.

Oso natural bota zuen, baina harritu egin ninduen. "Honek Espainiako selekzioan ere izango ditu, bada, lagunak", pentsatu nuen.

Ez dakit Llorentek hori esango zukeen gaztelaniazko hedabide batean edo Espainiako selekzioa joateko aukerarik balu... Ez dakit nik Llorentek baduen aipatu zuenaz aparteko arrazoirik bota zuena botatzeko, baina ez dut imajinatzen Albaceteko edo Cuencako jokalaririk bat esanaz Espainiaz aparteko beste selekzio batek Mundiala irabaztea gustatuko litzaikeela.

Irudipena dut ez dela erraz azaleratzen den sentimendua.

Gure artean lagunartean gaia plazaratu izan denean, bere burua

Espainiazaletzat ez duen jende batek ere ez du jarrera "logikotzat" jo izan: "Espainiako selekzioan euskaldunak egonik, nik nahiago dut horiek irabaztea", esango dizu batek, edo "niri berdin dit nork irabazten duen", beste batek.

Onartzen ditut jarrera horiek, baina, era berean, naturalizat jo beharko litzateke bestelako sentimendua ere. Ulertu beharko litzateke zeuk aukeratu ez duzun selekzioa eztarriko zulotik behera sartu nahi badizute, oso gogo onez ez hartzea. Ulertzen den bezala, senarra beste batzuek aukeratu dioten andreak senar horrekiko desamodioa sentitzea.

Ulertu beharko lukete eta, akaso, guk ere kontuan hartu beharko genuke beste gai batzuetan.

"Ez dakit Llorentek hori esango zukeen gaztelaniazko hedabide batean"

usteak uste

Mireia Bikuña

Errekalde auzoa hankaz gora!

Maiatz bukaeran hasi zituzten Errekalde auzoa berritzeko lanak. Bizilagunek hainbatetan eskatutako berrikuntzak martxan azkenik! Ez daukat zalantzarik auzoa dotore geratu dela, baina, orain sufritzen gabilta. Auzoa hankaz gora dago! Espaloi guztiak jasota, aparkaleku gutxirekin, langileak aurrera eta atzera... Autoarekin edo oinez etxera joatea zoramena da. Eta, hautsa? Etxeko txoko guztietara sartzen da. Erratza behin eta berriz pasa arren... Eskerrak laster oporrak hartzen ditudan!

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Jarioa

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Zenbat buru hainbat aburu, zaletuon gustuen arabera, koa izaten ari da aurtengo Tourrari buruzko iritzia: azkarra, taktikoa, aspergarria, sotila, adimentsuenentzat egina, emoziorik gabea, zorrotza, gorabeheratsua... Bakoitzak hauta dezala epai gustukoena.

Iritziak iritzi, ETB1eko emanaldiek freskagarri bereizi bat oparitzen digute arratsaldeko beroaldietan: Xabier Usabiagaren jardun jariotsua. Plazer betea da eguneroko etapa haren argibideekin jarraitzea. Euskara gozo dotorea modurik naturalenean eskaintzeaz gainera, txirrindularitza bera ikusten eta gozatzeko irakasten digu. Euskara eta txirrindularitza ez dira, haren ahoan, elkarren arerio; ez dago euskararen edo txirrindularitzaren artean hautatu beharrik: biak datoz bat erramu berean, biak eder, biak jori. Eta frantses (eta beste) hizkuntzen ahoskera hobetuz gero, perfekzioa.

[...] Gaur arratsaldean ere aiduru edukiko gaitu.

Atzo ilgora

Pello Zabala

<http://berria.info/blogak/pellozabala/>

"Diezietxo Julion" sartu zitzaigun ilgora ilgorako koskan gora. Eguerdia aldera saltatu zuen koxka. Baina, beste kontu pare hau dut erreparagai: eguzkia goizetik badoala alfertzen; ia oharkabean hasieran, baina 16 minutu berandutu du bere irten ordua.

[...] Arratsetik 8 minutu besterik ez da bizkortu: arratsetik mantxoago doa eguna moztu behar horretan. Baina, hemendik hilabetera, abuztuaren 20an 35 minutu izanen ditu arratsetik laburtuak: goizekoa ta arratsekoa batuz, 80 minutu, abuztuaren 20an. [...]

Bigarren erreparoa nire harriduratakoa da: astronomoak nola daki, urtebete aurretik jakin ere, ilgora honetan bero demasean ibiliko direla penintsulan, bero itogarrria dutela hainbat gau ta goizetan, eta egunez arnasa zailtzerainoko berotan? [...] Harrapazan/k! Eta hori astrorei begira, unibertsitateko eskolan sartu gabe. Biba zuek, astrozale izarjaleok!!

koplak

Andere Arriolabengoa

Eta orain Udalbiltza

Egoera hau ezin da esan dugunik harrigarria, berriro ere Madrid aldera begira Euskal Herria.

Alde guztietan ikusten du Audientziak problema, herrian alde lan egitea da pekatu handiena.

Pedraz, Marlaska eta Garzonek segitu ohi dute pista, gauza berdina direlakoan euskaldun ta terrorista.

Konstituzionalistak ere oso temati dabilta, langile finek osatzen dute eta gure Udalbiltza.

Jendartea ez bedi ixilik gelditu bait da txarrena, elkartasuna zabaldu dadin gure herrian barrena.

Euskal Herriak gaur aho batez nahikoa da dio ozen, larunbat honetako manifan oso argi geratu zen.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaria eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), Oinarritziko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igonen Osinaga, Ziortza Martin, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurilitza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Babesgabetasuna

Laura Olivenza, Ruben Juanes
Arrasate

Arrasateko bikote bat gara eta zazpi urte daramatzagu etxebizitza bilakatutako Musakolako baxu komertzial baten bizi izaten. Gure jabetza metro karratu guztien eskriturak dauzkagu eta baita Arrasateko Udalaren normati- ba guztiak beteta. Lan handia eginez gure bizilekua eraiki genuen eta oso pozik bizi izan gara.

Orain dela bi urte pasatxo, baina, gure bizitza aldatu zen. Gure atarteko, Elkano kaleko 6. zenbakiko, komunitateak igogailua jartzea erabaki zuen. Guk ez genion asmoari trabarik jarri eta hasiera baten edozein bizilagun moduan zati bat ordaintzeko prest geunden. Baina komunitateak erabaki zuen igogailurako gure despentsa hartzea. Guk jakinarazi genien despentsa horren eskriturak ditugula eta gure jabetza dela, hortaz adostasun batera heldu beharko ginatkeela, eta esan genien, baita ere, despentsako zati bat uzteko prest ginela, baina ez zuten

halakoetaz hitz egin nahi. Horrez gain, guk proposatu genuen, Debagoieneko beste etxe askotan moduan, igogailua atarte kanpotik jartzea, baina ez zuten aukera hori aztertu nahi izan.

Are gehiago, udaletxean salaketa jarri zuten gure kontra despentsa horren bidegabeko eskuratzea eta legez kontrako hondeaketa egin genuelakoan. Udalak hainbat konprobazio egin zituen eta guri arrazoia eman zigun. Jarraian komunitateak Bergarako epaitegian salaketa jarri zuen gure kontra. Epaiketa burutu zen eta epaileak guk esandakoa berretsi zuen: despentsa horrek 18 metro karratu dituela eta guk baxua erosi aurretik eginda zegoela, hau da, guk ez genuela hondeatu eta gure jabetza dela, hala ordainduta eta eskrituratuta dugulako.

Komunitatea ez zen epaia- rekin konforme geratu, eta sententzia errekurritu zuen Donostiako Auzitegi Probintzialera. Gure etsipenerako eta ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, Auzitegi Probintziala komunitatearen alde agertu zen. Hala, gu despentsa

gabe gelditu ginen eta ezeren truke gainera.

Epaia jakin ostean, igogailua egiteko lanak hasi zituzten eta kontua da hori egiteko gure etxera sartzeko eskailera- korridorea asko estutu behar dutela: 71 zentimetrokoa izango da eskailera zatiaren zabalera. Horrek esan nahi du atartean igogailua izateko eta hainbat bizilagunek irisgarritasuna bermatu ahal izateko -gure ustez hasiera batean bidezkoa dena-, guk ezingo dugula gurpildun aulki bat ezta kamilla bat gure etxera sartu.

Azken epaia- rekin ez gaude konforme eta gure eskailera bidezkoa den baino gehiago estutu behar dutelako salaketa jarri dugu. Hala, hori argitu artean, epaileek lanak geldiarazi dituzte. Hala esanda dago, baina lanean jarraitzen dute. Hori hala izanda, guk oraindik ez dugu igogailuaren gaineko kuotarik ordaindu; eta komu- nitateak astero batzarrak deitzen ditu gu moroso batzuk garelako leporatzeko.

Azken urteotan oso giro txarra bizi dugu komunitatean, aurretik inoiz izan ez genuena, epaiketetan diru asko gastatu dugu eta osasuna ere galtzen

gabiltza. Komunitatearen premiak kontuan hartu behar dira, baina zer gertatzen da norbanakoaren eskubideekin? Babesgabetasun itzela senti- tzen dugu.

Bizikleta eta euskal preso politikoen eskubieen defentsa!

Jose Mari Zugasti
Oñati

Etxeretek deiturik ostiralero herriko plazan elkartzen dira/gara euskal preso politi- koen eskubideak errespetatuak izan daitezten. Hilabeteko azken ostiraletan, ordea, herriko eragile desberdinek hartzen dute testigantza eta beraiek izaten dira deialdiaren bultzatzaile. Orain arte herri mugimendu desberdinek eman dute beraien elkartasun eta konpromisoa eta aurrera begira ere horrela jarraitzeko asmoa omen dago. Uztaileko azken ostirala ere ate joka

dugunean, hilabete honetako protagonista bizikleta izango da. Euskal Herrian eta Oñatin ere horren hedatua dagoen kirola.

Uztaila, ordea, hilabete esanguratsua da bizikleta munduan. Frantziako Tourra dela, eguraldi ona dela... alde guztietan ikus daiteke bizikleta. Mila era daude bizikletaz gozatzeko. Norberak gustuko duen erabilpena ematen dio (konpetizioa, zikloturismoa, mendi bizikleta, garraio bezala, bidegorria, erosketara joateko...), baina asko gara bizikletarekin lotura zuzena dugunak. Bil gaitetzen bizikletazaleok eta guztien artean eska dezagun errespetatu daitezela euskal preso politikoen eskubideak. Zenbat eta tropel handiagoa lortu, erreleboak motzagoak baina geldi ezin izango dira. Eta neke gutxiagorekin etekin handiagoak lortuko ditugu. Helmuga urrun dagoela jakinda ere, argi izan guztiok izango garelako garaile!

Uztailaren 30ean arratsaldeko zortzietan bizikletazaleok pankartaren atzean elkartuko garelakoan, jarrai ezazue bizikletaz gozatzen.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

www.danbaka.com

DANBAKA))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

irailak **17** izena emateko azken eguna

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

Ekainaren 26an egin zuen Hamai- | kudeetarako zerrendak eta pro- | da aurkeztuko dituztela dio Iña- | negoziatzen ari direla, hautes-
kabatek batzar orokorra eta han | gramak prestatzen hastea. Irri- | ki Galdos Hamaikabateko presi- | kundeetara elkarrekin aurkezte-
erabaki zuen hurrengo hautes- | lerako Gipuzkoan 32 bat zerren- | denteak. Hala ere, dio EAJrekin | ko, eta "baikorrek" direla.

Iñaki Galdos > Hamaikabateko presidentea

"Alderdi ikonoklasta da gurea eta jende berri asko hurbiltzen ari zaigu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Iñaki Galdos (Oñati, 1966) da Hamaikabateko presidentea eta beste debagoiendar bat, Eneko Oregi bergararra, presidenteordea. Biak datoz EAtik. Galdos Kiroleko eta Kanpo Ekintzetarako diputatua ere bada. Politika kontuez jardundugu.

Urtebete da EAtik irten eta alderdi berria sortzeko urratsa egin zenutela. Ze balorazio?

Pozik gaude egindako ibilbidearekin. EAtik irteteko eta alderdi berria sortzeko eman genituen azalpenak eta argudioak bete egin dira. Alderdi berria beharrezkoa dela argi geratu da, azkeneko hilabete hauetan geratutakoa ikusita.

Zeintzuk dira Hamaikabaten nortasun ezaugarri nagusiak?

Abertzaletasun historiko eta erakunde zaleak gidatu eta kudeatu du Euskadi azkeneko hamarkadetan. Akatsak akats, modu egokian gidatu du, gainera. Baina azkeneko urteotan abertzaletasun historiko hori ahuldu egin da. Besteak beste, muturrak indartzen doazelako. Batetik, espainolismoa eta, bestetik, ezker abertzalearen inguruan batzen ari den mugimendua. Bestalde, ikusi dugu aspaldi honetan abertzaletasun historikoaren inguruan egon den hainbat pertsona urruntzen joan dela esparru horretatik eta umezurtz geratu dela.

Haiendako eskaintza izan nahi du Hamaikabatek?

Ezinbesteko ikusten dugu esparru horretan, jeltzaleez gainera, beste indar politikoko bat egotea. Eta, horretaz gainera, gura izan dugu plazaratu eskaintza berri bat, politika egiteko modu berri bat. Jende berri asko erakartzen dihardugu, politikan inoiz ibili bakoia. Alderdi ezberdina izan gura dugu. Alderdi ikonoklasta izateko bokazioarekin jaio ginen.

EAJrekin batera aurkeztuko zarete datorren urteko udal eta foru aldundietako hauteskundeetara?

Hori da gure asmoa eta negoziatzen ari gara. Baikorrek gara. Ezinbesteko iruditzen zaigu indartzen ari diren muturren aurrean erdiko uharka hori beteko duen abertzaletasun historiko eta erakunde zalea indartzea. Edozelan ere, lanean gabilta eta zerrenda propioak osatzen

hasiak gara. Hemendik eta irailera bitartean, Gipuzkoan 32 bat zerrendaburu aurkeztuko ditugu. Araban eta Bizkaian lehen urratsak egiten gabilta, Nafarroaren kasua ezberdina da Nafarroa Bai dagoelako...

Realak euskararen aldeko mezua eroango du datorren urtean elastikoan. Zenbat emango dio Foru Aldundiak horregatik?

Diputazioak, Kiroleko Departamentutik milioi eta erdiko dirulaguntza jasotzen du urtero eta, bestalde, diputatu nagusiaren aurrekontutik ere dirulaguntza jasoko du datorren denboraldian euskararen aldeko mezua elastikoetan erotearren.

Kritikatua izan da hori.

Ulegarria da. Orain dela urte bi inkesta bat egin genuen gipuzkoarron iritzia ezagutzeko eta zati handi batek zalantzan jarri zituen goi mailako kirol talde profesionali ematen zitzaizkien dirulaguntzak. Beste batzuen ustez, ostera, Realari gehiago lagundu behar zaio, Gipuzkoarendako garrantzitsua delako.

EA eta ezker abertzalearen arteko bategite estrategikoren gainean zer iritzi daukazu?

Ezker abertzaleak modu zintzoan urrats egiazkoak egiten dihardu. Ukaezina da eta poztekoa da, gainera. Hala ere, iruditzen zaigu beste urrats batzuk egin beharko lituzkeela, besteak beste ETArengandik urruntzeko. Euskal Herriak beharrezkoa du ezker abertzale normalizatu eta legeztatua. Bestalde, EA eta ezker abertzalearen arteko bategiteagatik ere poztu egiten gara, argitzen doalako panorama. EAK egin duen jauzia ezker abertzalerantz ez da oso ulergarria, baina bai argigarria, eta, alde horretatik, ona da. Euskaldunan sinatutako dokumentua irakurrita ikusten dugu ezker abertzalearen diskurtsoa bere egin duela EAK.

Erraustegia egiteko aurrekontua eta epeak zehaztuta daude, baina, bestetik, atez atekoa pixkanaka-pixkanaka hedatzen doa.

Eztabaida faltsu eta gezurrezko baten aurrean gaude. Ematen du kontua dela: atez atekoa edo errauskailua. Eta hori ez da horrela. Kontua da bilketa egin ostean soberan geratzen den zabo-



Iñaki Galdos oñatiarra, Hamaikabateko presidentea.

ENEKO AZKARATE

ZABORREN KUDEAKETA
"Gipuzkoan ez dugu ikusten beste aukerarik zaborren soberakinak erretzea baino"

EA-EZKER ABERTZALEA
"Poztu egiten gara EA eta ezker abertzalearen arteko bategiteagatik"

rrarekin zer egiten den. Erre ala zabortegira eroan. Hori da eztabaida eta ez zela batzen dugun zaborra. Guk, Gipuzkoan, gaur egun, ez dugu ikusten beste aukerarik zaborren soberakinak erretzea baino. Eta, iruditzen zait, atez atekoaren aldekoek argi esan beharko luketela herritarren aurrean ze proposatzen duten birzikla ezin daitekeen zaborrendako, hau da, non kokatu gura duten Gipuzkoako zabortegia. Errauskailua askoz ere sanoagoa, garbiagoa eta ekologikoagoa da zabortegi berria egitea baino. Ez

dezagun ahaztu, hemen, Arrasaten, errauskailu bat izan dugula urte askotan, orain Zubietan jarri dena baino askoz ere kutsakorragoa. Orduan ez genuen ikusi horrelako zalapartarik.

Nafarroa Bairen gainean Aralarrek eta EAK sinatu duten akordioaren gainean ze iritzi daukazu?

Kezkagarria iruditzen zaigu koalizioaren baitan azkenaldian izan den eztabaida. Bat egiten dugu Uxue Barkosek esandakoarekin, Nafarroa Bai espiritu batekin sortu zela, alderdietatik harago doan proiektua dela, non jendarteak daukan protagonismoa. Aralarrek eta EAK urrats faltsua eman dute Nafarroa Bairen etorkizunerako kaltegarria dena.

Foru Aldundiak igarri du hobekuntzarik ekonomiari dago-kionean?

Gauzak ez doaz ondo. Iaz 500 milioi eurotik gora gutxiago batu ziren zergetan. Izugarria da hori. Eta 100 milioi eurotik gorako murrizketa izan dugu aurrekontuetan aurtan. Edozelan ere, zerga bilketan, hobekuntza txiki batzuk antzeman ditugu. Esaterako, BEZari dagokionean, urrats batzuk eman dira; Elkarteen Gai-neko Zergan ere nahiko ondo eusten gabilta eta hori pozgarria da. Egoera txarra da, baina zantzu txiki batzuk ikusten dira eta arnas apur bat hartzen hasiak garelako ematen du.

Sindikatuak oso kritiko dira diputazioen zerga politikarekiko.

Zilegia da. Hamaikabatek 7 batzarkide izan beharrean 35 balitu, beste zerga politika bat ezarriko genuke. Badaude hainbat neurri hartu beharrekoak eta sindikatuek proposatzen duten zenbait neurriekin bat gatoz. Esaterako, Elkarteen Gai-neko Zerga bi puntu gorago edukitzaren aldekoak ginen eta lortu genuen hasieran, baina gero ez. Ondasunen Gai-neko Zerga Gipuzkoan urtebete egon zen eta ez ginen kentzearen aldekoak, baina kendu egin zen eta orain denak dabilta berriro jartzearen alde. Sindikatuek bezala geuk ere uste dugu neurri fiskal eraginkorragoak har daitezkeela krisiari aurre egiteko.

goiena.net/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe


Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.com

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokiak
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita



Kalitate turistikoa

Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
www.zumelaga.com

Eskaintza


- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

Igande eguerdian zabalik
eta astelehenetan itxita

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetscea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **BERGARA**
Dunixi Olabarria:
"Eskerrik asko, Pol-
Polen zati izan
direnei" > 17



> **ARETXABALETA**
'Oso-osoko
jokalariei' saria
emanda bukatu du
UDaK urtea > 23



> **ESKORIATZA**
Bizardunak taldeak
kontzertua egingo
du Atxorrotzen
bihar, zapatua > 24



> **ANTZUOLA**
Pietatearen
erretaula herriko
parrokiara ekarriko
dute berriz > 25

ARETXABALETA > JENDARTEA

Herriko eta kanpoko jendea eta erretiratuak kantuan pintxo-poteoan

EGUAZTENETAN

Aretxabaletan eguaztenak dira pintxo-poteo eguna

OPORRAK

Datorren astekoa izango da azkena, irailera arte

ABESBATZA

Basotxoko abesbatzak eguazten batzuetan irtetea erabaki du

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Pintxo-poteoa Debagoieneko hiru herritan egiten dute, eta Aretxabaletako esperientzia da gazteena: martxoan hasi zen. Bada, konturatzeke, ikasturtea bukatu da pintxo-poteoa astero-astero antolatzen duten tabernariondako, eta, hala, datorren astekoa izango da azkena, irailera arte. Pozik hartuko dituzte ekintza horretatik oporrak tabernariok, izan ere, erantzun bikaina izaten du deialdiak asterik aste.

Aretxabaletak badu berezitasun bat: pintxo-poteo eguna eguaztena dela, eta ez eguena, Arrasaten eta Bergaran moduan. Hain zuzen, Arrasatekoarekin topo ez egitearren aukeratu zuten eguaztena tabernariok. Bada, jendeak agudo ikasi du ohitura berria. Honela diosku Jon Kepa Zubillaga Gurea tabernako uga-zabak: "Eguaztenetan, berez, giro pobrexegoa egoten zen, eta pintxo-poteoa egiten dugunetik igartzten da aldea, bai". Tabernari horren esanetan, "egunak eta egunak daude", eta "eguraldi txarra egiten duenean jende gehiago" ibiltzen da. Hala ere, herritarrek ez ezik, kanpokoak ere etorzen dira: "Arrasaten hasi zen, eta orain Arrasateko jendea ere etorzen da. Bestalde, nahiko jende gazte ere inguratzen da, astean zehar ikusten ez dugun jendea".



Joan den eguaztenetan, Herriko plazan hasi zen pintxo-poteoa, euria ziharduelako.

MIRARI ALTUBE

NORK BERA EGOKITU

Paulaner tabernako Iriana Elortzak esaten du Eskoriatzatik ere etorritzen direla bezeroak, eta "denetariko jendea" irteten dela: "gazteak, helduak, nagusiak..." Bere esanetan, "eguraldi txarrra dagoenean, taberna barruan batzen da jende guztia, eta larriago ibiltzen gara langileok".

Eurek zerbait berezia ere egiten dute: "Saiatzen gara euskal musika alai gehiago jartzten".

ESANAK

"Eguaztenetan giro pobrexegoa izaten zen, eta orain aldea igartzten da, bai"

"Astean zehar ikusten ez dugun jende asko etortzen da, kanpokoak ere bai"

Jon Kepa Zubillaga > Tabernaria

DATUA

300

PINTXO

Egun guztiak ez dira berdin, baina, tabernari batek dioskunez, eguazten baten 300 bat pintxo eta trago ematen ditu. Eguraldiak eragina izaten du jende gehiago edo gutxiago agertzen den.

ESANAK

"Denetariko jendea irteten da pintxo-poteora: gazteak, helduak, nagusiak..."

"Euskal musika alai gehiago jartzten saiatzen gara, girotxoa sortzeko"

Iriana Elortza > Tabernaria

Zazpiak aldera hasten da giroa. Baina eguraldiak badauka beste eragin bat, Josu tabernako Mari Abaden esanetan: "Eguraldi onarekin, beranduxeago etortzen da jendea, zortzietan-edo. Luzatu ere egiten da; bederatzietan botatzen dugu pertsiana, baina geroxeago dagoen jendea ere ematen diogu pintxo eta tragoa".

Herriko zortzi tabernak parte hartzen dute ekimen horretan, eta bakoitzak erabakitzen du aste

ESANAK

"Eguraldi onarekin, beranduxeago etortzen da jendea, eta atzeratu ere egiten da bukaera"

"Tabernari bakoitzak erabakitzen du ze pintxo eman egun bakoitzean"

Mari Abad > Tabernaria

bakoitzean ze pintxo eman. Viña Alcorta ardo ondua eta pintxo ematen dituzte, dena euro baten truke. Gero, nork bere erara egokitu du eskaintza; adibidez, Josu tabernan tragoa eskatzen duten guztiei ematen diete mokadutxo, tragoa bakarrik kobratuta. Abadek dioskunez, "egun baten, 300 bat pintxo" ematen ditu.

TXALOKA

Abuztuan, taberna batzuk itxita egongo dira, eta beste batzuk, goizez zabalik. Irailean, berdin jarraituko dute, hau da, eguaztenetan.

Eta, giroari goian eusteko, espero bako lagun batzuk izango dituzte tabernariok eta pintxo-poteo zaleok: Basotxo erretiratuaren elkarteko abesbatzakoak. Euren kabuz, eguazten arratsaldero pintxo-poteoaren berora abestera irtetea erabaki dute; dagoeneko estreinatuta dira horretan, eta "noizbehinka eguaztenetan irteteko asmoa" dutela esan digute. Aurrekoan 18 bat lagun irten ziren, kalerik kale eta tabernarik taberna, eta jendeak txaloz eskertu zien kantua eta umorea.

ZERBITZUAK > OINEZKOEN BIDEA

Garaiatik Markulete industrialderainoko oinezkoendako pasabidea eskatu dute

Diputazioak dio hori ez zegoela aurreikusita eta arlo teknikotik aztertzen dabilzala, "arrazoitutako erantzuna" emateko

UBANE MADERA > ARRASATE

Zail eta arriskutsu dago herritik Garagartza ingururaino oinez joatea. Hala dago, Garaia Berrikuntza Gunetik Urribarriko biribilgune berriraino (Markuleteko industrialdera bidean) ez dago eta oinezkoendako pasabiderik. Eta horren ondorioz, Garagartzara paseora doazen oinezko askok, Garaia jantoki berria erabiltzen dutenek, Ederlaneko Urribarriko jantokia erabiltzen dutenek edo, beste barik, Markuleteko lantokiren batera oinez joan gura dutenek (guztiak batuta ez dira gutxi) errepide ondotik joan behar izaten dute zati horretan, eta tartean, errepide gurutzatu behar izaten dute.



Oinezkoa errepide bazterretik, autoak ondotik pasatzen dituela.

U.M.

OINEZKOEN AHAZTU

Kexu dira horregatik. "Samurra zen Garaiaraino egin duten espaloia luzatu eta oinezkoendako pasabidea egokitzea, batez ere, inguruan obra egin dutela kontuan hartuta. Logikoa ere bazen, baina ez dute pentsatu batere

oinezkoengan", dio Ederlanen lanean diharduen Unai. "Obrak iraun artean porlanezko hesi batzuk ipini zituzten, eta haiekin babestuta sentitzen ginen, baina hesiok kendu egin dituzte", gaineratu du. Eta zera ere esan gura izan du: "Erreka bazterretik pasa-

tzen da beste bide bat, baina erdi-purdi dago; justu oraingo astean hasi dira harria botatzen. Hala ere, jantokietara joan beharra duenak ez du erreka ondotik egingo, izugarriko buelta ematen dute; edo autoan joan behar dugu?".

Garagartza ingurura paseora joandako Nereak, berriz, azpimarratu gura izan du Olandixoko tunela zabaltzen dutenean etorriko direla arazoak: "Zirkulazio handiagoa izango da eta tuneletik oso bizkor etorriko dira".

ESKAERA DIPUTAZIOARI

Bada, arazo horrekin jabetuta daude Arrasateko Udalean, eta eskaera ere eginda dute Diputazioan: "Urribarriko biribilgunean oinezkoen mugimenduei irtenbide egokiren bat emateko Udal Zerbitzu Teknikoekin batera azterketa egin eta dagokion proiektu osagarria idatzi, onartu eta gauzatu dezala. Horren harira, aurreratu beharra dago, arriskua ekiditeko oinezkoen mugimenduari galarazi ordez, ongi seinaleztatutako ibilbide egoki bat burutzeko izango litzatekeela irtenbidea".

BIZIKLETA BIDEAK

Udalaren alegazioak bidegorri planari

Lau alegazio aurkeztuko dizkio Udalak Diputazioaren Bizikleta Bideen Lurraldearen Planari.

Lehenengoan eskatuko du Diputazioak lehentasuna ematea Debagoieneko bidegorri zatiari lurraldeko gainerako zatien aurrean. Arrazoiak da Eibar-Gasteiz autobidearen proiektuaren ingurumen eraginaren deklarazioan zehaztu zutela "autobidea bukatu eta handik urte batera bidegorriak bukatuta" egon behar zuela.

Bigarrenean eskatuko du Elorregi-Arrasate zatia, Epeleko araztegi lanekin batera egiteko asmoa duten behin-behineko trazatuarekin egin beharrean, behin betikoa izango den bidetik eraiki dezala.

Hirugarrenean, Kaskonategiko zatia, erreka bestaldeko ibilbidea jarraituta egitea eskatuko dute. Eta laugarrenean, Takoloko bidegurutzean "arriku gabeko gurutzeta berma" dezatela.

OBRAK > BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Abiarazi dute Zerrajerako etxeen exekuziorako lizitazio prozesua

Irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dituzte proposamenak; aurrekontua da 981.000 euro pasa

U.M. > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik jakinarazitakoaren arabera, abiarazi dute Zerrajerako etxe berriak eraikitzeke lehiaketa publikoa. Bestela esanda, etxeok eraiki gurako luketen enpresek euren proposamenak bidaltzeko epea abiarazi dute.

Aurrekontua da 981.835 euro. Epea, berriz, irailaren 15a. Egun hori baino lehen aurkeztu behar dira proposamenak. Eta zabalduko dituzte irailaren 30ean. Jaurlaritzaren asmoa da obrak datorren urte hasieran hastea.

ALOKAIRU SOZIALA

140 etxebizitza dira eraiki beharrekoak, guztiak ere babes ofi-

zialekoak, hain justu ere, alokairu sozialean merkaturatzeko etxebizitzak dira. Behin obrak hasita, bi urteko epean bukatu egin beharko dituzte.

ETXEBIDEN IZENA EMAN

Anbulatorioaren atzeko aldean, eraiki behar dituzte etxeok; urbanizazioa gertu dute.

Etxebizitza horietakoren bat eskuratzeko Etxebiden eman behar da izena. Ahalik eta lasterren hobe, gainera, izena emanda dutenen antzinakotasunak lehentasuna emango die-lako etxebizitzaren zozketan. Era berean, lehentasuna izango dute, baita ere, Etxebiden izena ematerakoan finkatu dutenek etxebizitza horietako bat Arrasaten eskuratu gurako luketela.

ESKABIDE ORRIAK BAZ-EN

Etxebiden izena emateko eskabide orriak Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskura daitezke (baita Interneten ere). Bete ostean, eskaerari sarrera ere BAZen eman dakioke, BAZek eta Jaurlaritzak Erregistro Bateraturako hitzarmena dutelako.



JOKIN MUJICA

Herri kirolak, oporrak sasoitsu hartzeko

Joan den astean, urtero sasoi honetan egiten dutenez, herri kirol txapelketa ospatu zuten Ikerlaneko kideek Iturripen. Umore onean jardun zuten pilotan, sokatiran, lokotx bilketan, zaku lasterketan, txingak eramaten... Gero, galdutako indarrak berreskuratzeko, afaltzera joan ziren guztiak, Bittori erretegitara.

JAIK > MAALA ETA FERRERIAS

Domekan bukatuko dira Maalako Errabaleko jaiak

Ferreriasko jaietarako txartelak salgai daude

A.A./U.M. > HERRIA

Atzo, eguna, izan zen Madalena eguna eta horrekin batera hasi zituzten Maalako Errabaleko jaiak. Jarraipena, berriz, etzi,

domekan izango dute. Omenaldietarako eguna izaten da domekako: batetik, 12:30ean, Errabaleko hildakoen aldeko meza esango dutelako, aurten berritasun eta

guzti, San Frantziskon barik San Juan parrokiaren izango delako; eta bestetik, meza ostean *lunch*-a emango diete nagusiei, Plus Ultra tabernan.

AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Bestalde, Ferrerias kalean ere egiten dituzte jaiak, uztailaren 26an, kasu horretan. Bada, horren harira, dagoeneko salgai ipini dituzte afarirako txartelak, Tamayodendan. Iaz 80 lagunetik gora izan zen afari horretan.



Ferrerriasko Jaiak 2010

Uztailaren 26a, domeka

9etan Etxafuegoak
12etan Txistularien kalejira
17etan haur jolasak
Zaku lasterketa
Umeentzako lasterketak
Jokoak eta abar
Txokolote-jana

19etan Txistularien kalejira
Herri poteoa
19etan Kaleko hildakoen aldeko meza parrokian
19:15ean Konparsa txikien kalejira
21etan Herri afaria
23etan Dantzaldia

ILEAPAINDEGIA
ILEA
943 79 87 62

N & N sol
Estetika eta
brontzeatu zentroa
Ferrerrias 28 behea
Tel.: 79 64 57

estetika zentroa
angela
Ferrerrias 35 • Tel.: 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

MERKEKILO
Oihalak
Gortinak
Ferrerrias 5 Tel.: 943 79 15 00

**EUSKAL HERRIA
AURRERA!!!**
**IRATI
TABERNA** EZ GAITZ
DANOKI!!
FERRERIAS 27 • ARRASATE
TEL.: 943 79 56 11

**BASATI
TABERNA**
Ferrerrias kalea 19
943 71 17 68

Gorka
ile apaindegia
Tel.: 943 77 13 78

AKER
Tattoo & Piercing
Telno: 943799284
Ferrerrias 44 behea

URIZAR ★★
ostatua
Ferrerrias 15
Tel.: 943 79 12 93

Ferrerriasko Jaiak 2010

IBAI-ARTE > I. ARGAZKI LEHIAKETA

Irabazlerik ez, lehiaketaren gaiari heldu ez diotelako

Epaimahaiak ez du saririk eman: gaira hurbildu diren argazkiek kalitate nahikorik ez zutela diote

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Lehenengoz antolatzen diren ekimenek ez dute arrakasta bermatzen. Beti ez dira gauzak nahi moduan ateratzen. Hori da Ibai-Arteren argazki lehiaketari gertatu zaiona.

Arrasateko merkataritza eta zerbitzuen argazki ederrak lortu gura zituzten, urte amaieran egutegi bat egiteko. Bada, egutegia ateratzeko asmoa dute oraindik, baina ez da lehiaketara aurkeztu diren argazkiekin izango. Izan ere, kalitate zein kalitate aldetik espero baino erantzun eskasagoa izan du argazki lehiaketak. Epaimahai-

koen iritziz, argazkiek ez diote lehiaketaren gaiari heldu; hau da, ez dituzte herriko merkataritza eta zerbitzuak eskatu moduan islatu. Eta gaira hurbildu diren argazkiak ez dute kalitate nahikorik, euren ustez. Kopuru aldetik ere argazki gutxi jaso dituzte.

ERAKUSKETA, BERTAN BEHERA

Erakusketa zabaltzeko asmoa zuten Harresi aretoan, eta erakusketa bera ere bertan behera uztea erabaki dute. Datorren urtean, hasiera baten, berriro antolatuko dute, baina oraindik ez dute pentsatu nola planteatu.



Goiko bi argazkiak izan dira publikoaren gustukoena: *Da color a tu comercio* eta *Ibai-Arte, una nota de color.*



IBAI-ARTE

DATUA

16

ARGAZKI AURKEZTU DIRA

Ibai-Arteren lehen argazki lehiaketak nahiko parte-hartze txikia izan du. 16 argazki jaso dituzte; Arrasateko merkataritza eta zerbitzu elkarteak espero baino gutxiago.

SARIAK

Irabazlerik ezean, publikoarendako sariak

Ibai-Arteko zuzendaritza batzordeko kide batek eta elkarteko bazkide diren argazkilaritzako hiru profesionalak osatu dute epaimahaia. Saria hutsik uztea erabaki dute. Lehenengoarendako 500 euro, bigarrenarendako 300 eta hirugarrenarendako 200 euro banatu behar ziren Ibai-Arteko saltokietan gastatzeko. Bada, ez dago saririk.

Irabazlerik ezean, publikoarendako sariak banatu dira, webgunearen bitartez argazkiak bozkatu dituztenendako. Hauexek dira zozketa bidez aukeratu dituzten arrasatearrak: Aitor Sasiain, Susana Vazquez eta Leocadia Romero. 100 euroko erosketa txartel bana irabazi dute.

Zerrajerako bizilagunak, jaiak sortu guran

Zerrajerako bizilagunek jaiak gura dituzte auzoan. Horretarako, lehen proba bat egin zuten joan den aste bukaeran, ekimenak datorren urterako indarra hartuko duen esperantzaz; musika, dantza eta haurrendako jolasak izan zituzten. Jai batzorde bat sortu gura dute eta asmoa da uztailako bigarren aste bukaeran ospatzea. Zeinu bereizgarria jarri diote dagoeneko: txapela eramatea derrigorrezkoa izango da.



MONIKA MONTERO

JENDARTEA > GAZTETXEA

Herrien askapen borrokari elkartasuna erakusteko astea

Martitzenean hasi zen eta astelehenera arte Aste Internazionalista izango da gaztetxean

J.B. > ARRASATE

Martitzenean hasi zuten, gaztetxearen atarian mural bat margotuz, eta astelehenean bukatuko dute urteroko kubatar festa eginda: Aste Internazionalistan murgilduta dago gaztetxea. Domekan izan ezik, egunero egongo da zer egin.

BIHAR, ATXORROTZERA

Muralaz gain, herrien borroka erakusteko ikus-entzunezkoak izan dira: eguaztenean, *Movimiento sin tierra* dokumentala eta atzo, Pakito Arriaran borrokalari arrasatearraren gaineko dokumentala. Gaur *El Salvador* izeneko hitzaldia egongo da, 18:00etan. Bihar, berri, Atxorrotzera egingo dute irteera. Aitzakia, Bizardunak-en kontzertua. Azkenik, astelehenean amaituko dute egitarauarekin, mojitoz blai: kubatar festak aurrez ere ez du hutsik egingo.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

> ISTRIPUA

Zapatuan saihebidetan izandako istripu bateko kaltetua, lekuko eske

Joan den zapatuan, uztailak 17, istripua izan zen Arrasateko saihebidetan, Debagoieneko ospitalearen parean. Bada, istripua izan zuen Seat Leon urdinaren gidaria lekuko eske dabil, auto aseguruak hala eskatuta.

Lagundu ahal duenak dei dezala honako telefono honetara: 625 70 43 81 (Aioa).

> IKASTAROA

Software librearen ezagutzea eta instalatzeko aukera, Orhipean-en eskutik

Orhipean kultura eragintza taldeak software librearen gaineko tailerra antolatu du domekarako, hilak 25. Software librearen eta zenbait aplikazioen gaineko argibideak emango dira, eta parte-hartzaileek DVDa eramango dute programa sortarekin. Arrano elkartearen izango da, 17:30ean. Izena eman behar da Irati tabernan.

> EUSKARA

Eskujokoak igerilekuan, familian euskara bultzatzea helburu

Txatxilipurdik beste ekimen bat antolatu du zapaturako familia bidezko euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Uretan egiteko eskujoko edo malabare tailerra antolatu dute, Musakolako igerilekuan. Hala, haur eta gurasoek bolak, kariokak eta bestelako eskujokoak egingo dituzte. Hitzordua da 11:30etik 13:30era.

MUSIKA > UDAZABAL

Asia aldeko musika erritmo kubatarrekin nahastuko da egunotan Monterronen

Datorren martitzenean Panghat eta Lezginka taldeen emanaldiak egingo dituzte Monterron parkean, Udazabal barruan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Datozen egunotan Udazabal programak musika ekarriko du Monterronera. Erritmo eta estilo ezberdinetako musika, gainera. Batetik, domekan egingo dute Kataluniako Pixie Dixie taldekoek emanaldia -32. orrian duzue informazioa- baina datorren asterako ere hitzordu erakargarriak daude.

FOLKLOREA

Datorren martitzenean, hilak 27, Panghat taldeak kontzertua egingo du. Talde hori folkloreko hogeita bost dantza-motatan baino gehiagotan espezializatuta dago. Eta, dantza horiek jatorrizko lekuetako maisuen bitartez ikasi dituzte. Gainera, eskenatokian arropen ere garrantzi handia ematen diete eta tradizio-jantzi bakoitza taldeak diseinatzen du ardura osoz. Horrekin

guztiarekin, Panghat taldekoek emanaldi oso ikusgarriak egingo dituzte, eta dagoeneko munduko hainbat herrialdetan erakutsi dituzte.

Lezginka dantza taldea, berriz, izaera biziko dantza hunkigarri baten izena da, eta Kaukasoko sinboloetako bat da. Hala, Lezginka Dagestango Errepublikako koreografia talderik ospetsuenetako bat da, eta talde horren errepertorioko koreogra-

fia gehienak Kaukasoko folklo-rean oinarritzen dira.

DEBOSON, HILAREN 30EAN

Datorren egubakoitzean, berriz, Deboson talde kubatarren erritmoek dantzan jarriko dute bat baino gehiago Monterronen.

Deboson seikote tradizionala 1995ean sortu zuten, eremu nazionalen eta nazioartean ibilbide bikaina egindako eta izen handiko musikariek osatua. Talde horretako kideek kalitate gorena lortu dute soinuari dagokionez, eta aldi berean lan aparta egin dute Kubako herri musikaren inguruko ondarea erre-kuperatzeko.

Kubako erritmoekin batera, guaratxak, kunbiak, merengeak, guajirak, cha-cha-cha, saltza eta bestelako erritmoak ere jotzen dituzte, ikusleen gozamenarako.

ABUZTUAN ERE ZINEA

Abuztuan ere Monterroneko harmailak jendez beteko dira, egubakoitzetan zine emanaldia egongo da-eta (22:30). Hala, abuztuaren 6an *Spanish movie* filma emango dute, abuztuaren 13an *Yo tambien* filma; abuztuaren 20an *Furia de Titanes* eta abuztuaren 27an *Oceanos*.

Egitaraua, eguna-ordua

25, domeka, Monterronen
22:30 Pixie Dixie talde kataluniarraren emanaldia*.

27, martitzena, Monterronen
22:30 Indiako Panghat taldearen eta Dagestango Lezginka taldearen emanaldia.

30 egubakoitzea, Monterronen
22:30 Deboton taldeak erritmo kubatarrek ekarriko ditu Arrasatera.

OHARRA: Pixie Dixie taldearen emanaldiaren gaineko informazioa 32. orrian duzue.



Panghat Performance Arts taldea, Jakan egindako emanaldian.

GOIENKARIA



Fernandez, ezkerrean, eguaztenean finalerdietarako sailkatuta.

AS.COM

FUTBOLA > EUROPAKO 19 URTEZ AZPIKO TXAPELKETA

Aitor Fernandez atezaina Espainiako selekzioarekin dago, finalerdietan

Luis Millak zuzentzen duen taldeak Italiaren kontra jokatu du bihar, zapatua

alde egin du partiduotan. Hautatzaileak esan du jokalariek guztiei eman nahi diela jokatzeko aukera, eta baliteke zapatuan Arrasatekoa Muniain, Canales eta bestelako taldekideekin batera berdegunean egotea.

X.U. > ARRASATE

Aitor Fernandez Athleticen atezain arrasatearra Frantzia jokatzeko dabilen Europako 19 urtez azpiko txapelketan dago Espainiako selekzioarekin.

Talde gorriak Italiaren kontra jokatu du zapatuan, baina Luis Millaren mutilak dagoeneko finalerdietarako sailkatuta daude, lehenengo partiduan Kroaziaren kontra 2-1 irabazi, eta eguaztenean Portugalen kontra gauza bera egin ostean. Kroaziak eta Italiak eguaztenean 0-0 egin zuten, eta Millaren mutilek matematikoki lortu dute finalerdietarako txartela; bihar Italiaren kontrako partidua ez da horren erabakigarria izango.

AUKERAK GUZTIENDAKO

Fernandezendako, baina, seguru txapelketa gazi-gozoa izango dela, oraindik ez duelako debutik egin. Europako txapelketarako sailkatzeko partiduetan Arrasatekoa hasierako hamakakoan egon da, baina Millak Bartzelonako Alex atezainaren

LEHENENGO TALDEAREKIN

Europako txapelketan dagoenez Fernandezek ezin izan du Athleticen lehenengo taldearekin denboraldi-aurrea egin, hori zen-eta Caparrosen asmoa. Hala, lehenengo taldean hirugarren atezain izatea baino taldeko arduradunek nahiago dute Arrasatekoak, 19 urterekin, beheko taldean jokatzeko esperientzia hartzen jarraitzea.



Aitor Fernandez.

X.U.


MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako Errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta


beinke

arrasate


BASATI TABERNA

943 711762

UDALA > ZERBITZUAK

Udalak kudeatuko du irailaren 1etik aurrera kale garbiketa zerbitzua

Kudeaketa zuzenarekin zerbitzua, urteko, %35 merkeago izango dela diote

EAJ eta PSE-EE ez daude ados, arrazoi ekonomikoengatik eta kontratazioengatik

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Kale garbiketa zerbitzuaren gestioa Udalak bere gain hartzea onartu du udalbatzak martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Udal Gobernuaren aldeko botoekin -8 boto, Aralarko zinegotzi bat ez zelako egon- eta EAJren eta PSE-EEren kontrakoekin -7 boto- hartu zen erabakia. EAri dagokionez, alderdi horretako zinegotzia ez zen bilkuran izan.

Udala irailaren 1ean hasiko da kale garbiketa zerbitzua zuzenean kudeatzen. Hori horrela, eta orain arte Cespa enpresak eman duenez zerbitzu hori, erabaki dute hango bederatzir langileri irailaren 1etik aurrera aldi baterako kontratuak egitea, bitarteko-interino-izaerarekin, hain justu ere. Guztira, 17 langilek



Gaur egun Cespak erabiltzen duen makinetako bat kalea garbitzen.

M.B.

osatuko dute zerbitzu hori eta gainerakoak kontratatuko dira lanpoltsetatik. Guztiak, bitarteko izaeran, eta gero plazak aterako dira lehiaketara, Agurne Barruso alkateak esan zuenez.

EAJ: "ZERBITZUA EGOKIA DA"

Hiru arrazoi eman zituen EAJko Rafa Amasorrainek erabakiaren kontra egoteko: "Batetik, uste dugu kale garbiketa zerbitzua egokia dela. Duela gutxi txosten

bat egin zen non herritarrek ondo ikusten zuten zerbitzua, eta, hortaz, ez dugu ikusten ordezkatze beharrik. Bestetik, arrazoi ekonomikoak daude, ez dugu garbi ikusten alderdi hori eta horren harira guk aurkeztuko dugu txosten bat irailan, gure erabakiak arrazoituz. Azkenik, badira udal txosten batzuk, eta bertan esaten da gai honetan egon den prozedurak arazo juridikoa izan ditzakeela. Eta horrekin

batera, pentsatzen dugu gaur egungo langileendako ez dela onena hartutako erabakia".

PSE-EE: "ZENTZUGABEKERIA DA"

Alderdi sozialistarendako Udal Gobernuaren jarrera "erabat anakronikoa" da eta uste du "gauden krisi sasoiaren non Udalek funtzionamendu gastuak gutxitu behar baitituzten-, Udaleko langile kopurua handitzea" dela "zentzugabekeria itzela". Bestal-

de, zalantzan jarri dute "langileak funtzio publikoan sartzeko jarraituko den prozeduraren objektibotasuna".

Horrekin batera, uste dute Udal Gobernuaren proposamenak ezegonkortasuna eragingo duela gaur egungo kale garbitzaileen enpleguan, "kontratuak aldi baterakoak direlako eta kontratatuko den udal langileen kopurua txikiagoa delako gaur egun dagoena baino".

UDAL GOBERNUAREN AZALPENA

Kontratazioen gainean EAJk eta PSE-EEk esandakoari erantzunez, Barruso alkateak esan zuen badituztela txosten juridikoak "langileen lekualdatzearen legaltasuna baieztatzen dutenak. Eta gehitu zuen: "Langileok irailaren 1ean interino moduan hasiko dira eta gero atera beharko dituzte plazak lehiaketa publiko bidez".

Alderdi ekonomikoaren gaineko azalpenak Enara Minguez zinegotziak eman zituen eta esan zuen gestio zuzenak "urtero %35 aurrezte, -500.000 euro-" ekarriko duela. Eta gehitu zuen. "Cesparen urteko gastua 17 langileekin -gaur egun 11 ditu- 1.345.657 euro izango litzateke eta Udalak kudeatuta, berriz, urteko gastua 850.296 euro izango litzateke, bost urterako *renting* sistema bidezko makineria barne".

AUZOAK > JAIK

Jaiak ospatuko dituzte asteburuan Bolu, Basalgo eta Goimendi auzoetan

Bolutarrek Santa Ana jaiak ospatuko dituzte eta Basalgo eta Goimendin, Santiago jaiak

M.B. > BERGARA

Asteburuan herriko hiru auzoetan jaiak ospatuko dituzte. Bolu auzoan Santa Ana jaiak hasiko dira gaur, eta Santanaxoren jaiak hasiera. Bihar, umeendako kukaina eta jokoak egongo dira 12:00etan; mus txapelketa, 16:00etan; eta 18:00etan, puzgarriak eta umeendako musika egongo dira. Baita txokolate-jana ere. 21:30ean auzoko afaria egongo dute Azpeitxi jatetxean. Domekan, meza nagusia egongo da San Pedro parrokian, 11:00etan, eta ordu berean, auzoko lau bikotek pilota txapelketa jokatu dute auzoko pilotalekuan. 12:00etan umeendako puzgarriak eta txikiteo herrikoia egongo dira; 16:00etan tute txapelketa; eta 20:00etan, jaiak amaiera emango diete Santanaxoren igoerarekin.

Basalgo auzoari dagokionez, bihar, 18:30ean, hasiko dira jaiak eta jarraian makala jasoko dute. Domekan, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta 12:00etan, 28. Basalgoko igoera ziklismo proba. 12:30ean, Amuriza eta Peñagarikano bertsolariek saioa egingo dute eta 13:00etan, goi mailako afizionatuen pilota partidak egongo dira. Partiduak bukatu eta gero, erromeria egongo da Alai taldeak eta soinu-joleek alaituta eta 15:00etan bertso bazkaria egongo da Amuriza eta Peñagarikanorekin. Astelehenean, meza egongo da 13:00etan eta 14:30ean bazkaria egingo dute auzoko jubilatuek eta jai batzordeak.

SANTIAGO JAIK BI AUZOTAN

Basalgo eta Goimendi auzoetan Santiago jaiak ospatuko dituzte.

GOIMENDIN ERE JAIK

Goimendi auzoan bihar 21:30ean emango diete jaiak hasiera berakatz zopak jaten. Bihar, meza nagusia egongo da 11:00etan; 12:00etan soka dantza egingo dute Kezka taldekoek eta 12:30ean Joxe Agirre eta Gorrotxategi bertsolariek saioa. 18:00etan herri kirolen erakustaldia egongo da eta 18:30ean, bola joko txapelketa.

JAIK > SAN MARTINAK

San Martinen heriotza antzezteko boluntarioak behar ditu Kultura Sailak

M.B. > BERGARA

Udaleko Kultura Sailak San Martin jaiak prestatzen dihardu dagoeneko. Jaietako ekitaldi nagusietako bat danborrada izaten da, eta, harekin batera, danborrada bukaerako San Martinen heriotzaren antzezpena.

Azkeneko urteetan Gabero abesbatzak antzeztu izan du San Martinen heriotza, baina, Kultura Sailetik aurreratu dutenez, aurten ez dute egingo. Hori horrela izanik, San Martinen heriotza antzezteko boluntario bila dabil Udala; 24 bat lagun beharko dituztela ere aurreratu dute Udaleko arduradunek.

IZENEMATEA ZABALIK

Hori horrela, interesa izan dezaketenen herritarrei izena emateko gonbita egiten diete Kultura Sailetik.

Horretarako, kultura etxera jo behar da -Errotalde jauregia- eta epea da uztailaren 30era arte. Informazio gehiagorako deitu 943 77 91 60 zenbakira.

SIRIMIRI
JATETXEA



ABUZTUAN
EGUNERO ZABALIK

Barrenkale, 3
BERGARA
943 76 59 19

Dunixi Olabarria > Ostalaria

"Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, batik bat Pol-Poleko parte izan diren guztiei"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Pol-Pol tabernak ateak itxiko dituzten 31n. Dunixi Olabarriak 28 urte eman ditu haren kargu, bizitzaren zati handia, eta penaz lagako du. Baina ez da izango pena sentituko duen bakarra; herritar askok ere igarriko dute faltan Pol-Pol.

Zergatik itxiko duzue?

Eraikina Gotzaindegia eta, errentan gaude, eta, eraikinaren dako planen bat dutenez, ba guri, Pol-Pol elkarteari eta Biltoki dendarri jarri digute data, maiatzaren 31, eraikina hutsik lagatzeko. Hala esan zigun parrokoak.

Herriaren historiaren zatitxo bat da Pol-Pol.

Uste dut baietz. Guk daramatzagu 28 urte tabernarekin eta aurretik, sei edo zazpi urtez, Pol-Pol elkarteak kudeatu zuen. Sasoi hartan koadrilaka arduratzen ziren tabernaz; bakoitza astebetez. Ni ere ibili nintzen. Ordu gutxi zabalitzen zen, arratsalde bi orduedo...; jatekorik ere ez zen ematen. Taberna moduan ez zuen funtamentu handirik. Bazkide kuotetako dirua erabili behar izaten zuten tabernako gastuak ordaintzeko. Azkenean, taberna elkarterako kalte bilakatu zen eta deitu ziguten tabernaz arduratzeko.


Nik uste nuen zuk hartu zenuela taberna, baina guk diozu eten gabe.

Beti diot *guk*; izan ere, inguruan ditudanak gabe ezin izango nukeen tabernarekin aurrera egin. Anaia *Budi*-k ere nik beste lan egiten du, esaterako.

28 urteotan gauzak asko aldatu dira, gizartea asko aldatu da. Pol-Polek ere izan du hala-ko bilakaera?

Nik uste dut baietz. Herria nola, bada gu hala joan gara. Hala eta guztiz ere, formak edo modak aldatu egin diren arren, oinarrian berberak izaten jarraitu dugu. Borroka moduak alda daitezke, baina borroka bera izaten jarraitzen du.

Lehen, esaterako, ez zegoen senegaldarrik. Gaur egun bai, eta tabernara etortzen dira, eta bada-



Andoni eta Dunixi Olabarria, Pol-Poleko barra ostean.

MONIKA BELASTEGI

"Modak aldatzen joan diren arren, oinarrian berberak izaten jarraitu dugu"

"Ostalaritzan jarraitzeko asmoa dugu anaiak eta biok; geldirik ez gara egongo"

kite haiekin gaudela. Pol-Pol ez da soilik taberna bat, hori baino gehiago da. Eta horregatik esaten dut beti *guk, nik* esan beharrean. Pol-Pol askok osatzen dugu.

Tabernaren beste gauza deigarrietako bat izan da adin askotako jendea sartzen dela.

Bai, eta oso aberasgarria da hori. Gaur egun gaztetxoak lokalatan egoten dira asko eta belau-naldi oso ezberdinak izango dira

horiek. Tabernan gertatzen den belaunaldien arteko partekatzea galdu egingo dute.

Beste herri batzuetako jendearendako ere erreferente izan da.

Baietz uste dut; udaletxea non dagoen jakin ez baina Pol-Pol non dagoen dakienik badago.

Pol-Polek ateak itxiko dituela jakinda, zer esan dizute bezeroek?

Batzuek asko igarriko dute faltan, batik bat gaztetxoek eta nagusiagoek. Gaur goizean esan dit batek desiratzen dagoela iraila heltzeko non nagoen jakin eta hara joateko.

Bezero asko ere oso konprometitua izan dira. Eta hala izan delako eman ditut nik ere hainbeste urte.

Azkeneko urteetan gainbehera etorrira dago tabernetako giroa.

Asko. Azkeneko bost urteetan behera egin du nabarmen, baina herriko giroak, oro har, egin du behera, eta normala da, hein baten; alkohol probak daude eta zerbitzu publikoa dagoela dioten arren, saia zaitez taxia hartzen, ea bat aurkitzen duzun... Baina ez Bergaran bakarrik, orokorra da hori. Tranbia izanez gero...

Zeintzuk izan dira Pol-Polen urrezko urteak?

2004ra arte ondo ibili gara, arazoa ez zen, behintzat, *kaxa egitea*. Baina bost urtetik hona, gauzak erabat aldatu dira.

Etorkizunerako ze asmo daukazu? Sagarren zerbait zabaltekoa zarela entzun dut.

Geldirik ez gara egongo eta ostalaritzan segitzeko asmoa dugu anaiak eta biok, baina oraindik ez dago ezer finkaturik. Hala ere, gure izaeraren isla da Pol-Pol eta taberna berriren bat zabalduz gero, espiritu hori izango du; ezin da bestela izan.

Agur jaia prestatzen diharduzue Pol-Polen.

Bai. Gaur, egubakoitza, Kojon Prieto y Los Guajolotes taldeak kontzertua egingo du 23:00etan. Etxekoak bezalakoak dira eta jakin zutenean ixtekoak ginela, bada, deitu egin zidaten etorriko zirela esanez. Eta hori da lehenago aipatzen nuen espiritu. *Golfuak* direla, ba, bai, baina ondo portatzen dira, kunplitu egiten dute.

Bihar, zapatua, 19:30ean, *Gerra eta errepreioa Euskal Herrian eta Bergaran, izen guztiak, aurpegi guztiak* delako hitzaldia egingo dute Intxorta 1937 kultura elkarteok, besteak beste.

Eta amaitzeko, hilaren 31n bazkaria egingo dugu Muniben edo San Martin plazan. Musika eta bestelakoak ere egongo dira.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei eta bereziki Pol-Poleko parte izan diren guztiei, eta, nola ez, auzokoei, hainbeste urtez halako pazientziarekin jasan gaituztelako.

oharrak

ZERBITZUAK

> Hilaren 27an batuko dute baserri ingurunekeo plastikoa

Ohi bezala, batuko dute Ugarrixan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juanen, eliza aurreko plazatxoan. Batze lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira. Abuztuan ez da zerbitzurik egongo. Hurrengoa irailaren 28an izango da.

DEIA

> Hilaren 28an da hurrengo odol ematea, eguaztena

Ohi bezala, Seminarioko egoitzan izango da eta herritarrei dei egiten diete, batik bat gazteei, odola ematera joan daitezten.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

CRICKETA > TALDEA OSATU DUTE BERGARAN

"Bergara cricket taldea ofizial egin eta Udalari laguntza eskatu nahi diogu"

Bergaran cricquetean jokatzeko batzen diren lagunak Logroñon egin berri duten txapelketan izan dira, eta bigarren sailkatuta itzuli dira etxera

XABIER URTZELAI > BERGARA

Asteburuetan pakistandar lagun koadrila ederra batzen da Ipin-tzan, cricquetean jokatzeko: "Orain dela lauzpabost urte hasi ginen hemen cricquetean jokatzeko, baina azkenaldian askoz ere hobeto antolatzen gara, eta txapelketetara joaten ere hasi gara", adierazi du taldea ofizial egiten dutenean presidente lanak egingo dituen Basharat Hussainek.

Hain zuzen, Bergara cricket taldeko 30 lagun pasa Errioxan izan berri dira hiru eguez, Logroñon egin duten txapelketan esku hartzen. Eta Bergarakoak



Bergara cricket taldeko kideak, Logroñon eskuratutako garaikurrekin, aste barruko entrenamendu saioan.

X.U.

bigarren sailkatu dira, finalean Ali Cheema taldearen kontra galdu ostean: "Maila oso oneko taldeak batu ginen, hamabi guztira. Leku askotako taldeak ginen

han, Bartzelonatik etorritakoak, Vigokoak, Toledokoak... eta hiru eguez egon ginen txapelketan esku hartzen. Logroñoiko txapelketa oso ondo antolatu dute, bai

na Udalaren laguntza izan dute guztia aurrera ateratzeko, eta sariak banatzera ere hango alkattea etorri zen. Guk Bergararen izenean jokatu genuen, eta nahi-

ko genuke, gure taldea ofizial egitearekin batera, etorkizunean gure herrian ere txapelketak antolatu ahal izateko Udalaren laguntza izatea". Hasteko, taldekoak babesle bila dabilta jokalariek elastikoak izan ditzaten, eta fundamentuz entrenatu ahal izateko ikastetxeko jolaslekutik Ipintzako berdegunera egin nahiko lukete salto: "Hemen lurrera eroriz gero min hartzen dugu-eta".

KIROL EZAGUNA

Hemen cricketa ez da kirol horren ezaguna, baina Asia aldean futbola bezain ezaguna da: "Asian, Afrikako lurralde askotan... Ingelesek kolonizatu zituzten lurraldeetan utzi zuten gauzetako bat da cricketa, eta gure herrian futbola bera baino kirol garrantzitsuagoa da".

Bergarako taldea da Debagoienean ondoen antolatuta dagoena, baina ez da talde bakarra. Arrasaten ere badute cricket talde bat, eta Logroñon elkarren kontra jokatu zuten derbia; Bergarak egin zuen aurrera.

LAUKI
AHOLKULARITZA S.L



IREKITZE
DATA:

ABUZTUAREN
25a

AHOLKULARITZA FISKALA

LAN AHOLKULARITZA

KONTABILITATEA

HAINBAT ZERBITZU

Helbidea:
Ibargarai,18
BERGARA

Zure
zerbitzura gaude

ESKATU
AURREKONTUA



tel.: 675 73 24 69

asesorialauki@hotmail.com

Manex Alberdi > Dantzaria

"Dantzarekiko zaletasuna amarengandik datorkit, eta hark animatuta hasi nintzen"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

10 urte besterik ez duen arren, artista ederra dela erakutsi du Manex Alberdik. Ekainaren 25ean Munibe plazan egindako *performance*-eko protagonistetako bat izan zen Alberdi; hain zuzen ere, Finlandiatik mezua ekarri zuen zisnearen papera egin zuen.

Zelan gogoratzen duzu Munibe gau magikoak performance-aren esperientzia?

Jende asko zegoen eta oso polita izan zen.

Lehenengo aldia da jendarean dantza egiten duzuna?

Ez, ez da lehenengo aldia, aurrez ere egin izan dut dantza Osintxuko dantza taldearekin. Hala ere, lehen aldia izan zen protagonista papera egiten nuena.

Hasi arteko urduritasuna izan nuen, bai; baina, behin dantzan hasita, guztia ahazten da.

Nola ikusi zenuen zeure burua han, Munibe plazan?

Nik neuk ondo ikusi nuen... baina besteek ez dakit zelan ikusiko zuten!

Etxekoek esan didate oso ondo egin nuela, eta asko gustatu zitzaizela.

Ramon Arantzabalen performance-a egiteko zelan jarri ziren harremanetan zurekin?

Osintxuko dantza taldean komentatu zuten ea nor izango zen zisnea; aukeraketa egin zuten eta ni aukeratu ninduten.

Osintxuko dantza taldean ibiltzeaz gain, Eibarrera ere joaten zara, ezta?

Bai, hala da. Osintxuko dantza taldean nabil, eta, horrez gain, Eibarrera ere joaten naiz dantza klasikoa ikastera.

Noiz hasi zinen balleteko eskolak hartzen?

Orain dela urtebete, gutxi gorabehera. Amak animatuta hasi nintzen, baita lehengusinak ere. Bi irakasle ditut Eibarren, Iraia eta Olatz.

Zer ikasten duzu dantza klasikoko eskoletan?

Dantza egiteaz gain, barra ikasten dugu. Beste modalitate bat da hori. Bestalde, kurtso amaieran egiten dugun erakustaldirako dantza ere geuk sortzen dugu. Denon artean asmatutakoa izaten da.

Nondik datorkit dantzarekiko zaletasuna?

Dantzarako zaletasuna amarengandik datorkit. Erabaki zuen dantza erakustea Osintxun eta horrela hasi nintzen ni ere.



Manex Alberdi, Errotalde jauregiaren aurrealdean.

A.E.

"Lagunek animatu egiten naute, esaten didate gustuko badut jarraitzeko"

"Ez da lehenengo aldia, aurrez Osintxuko dantza taldearekin egin izan dut dantza"

"Zailena izaten da pauso bat irteten ez zaizunean behin eta berriz entseatzea"

Horrenbestez, familiarik datoren zaletasuna dela esan daiteke.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Zaila da esatea... baina dena gustatzen zait.

Euskal dantzak edo dantza klasikoa, zer gurago duzu?

Biak ditut gustuko, ez dakit zein aukeratu. Euskal dantzak herrikoiagoak dira; klasikoa, aldiz, ez da hain ezaguna.

Zer esaten dizute lagunek?

Esaten didate oso ondo egiten dudala, eta niri gustatzen bazait aurrera jarraitzeko.

Etxean, gainera, ama pozik egongo da!

Bai, hari ere gustatzen zaio eta.

Zure ustez, zer da dantzak duen gogorrena?

Pauso bat irteten ez bazaizu, asko entseatu behar duzu hori ondo egiteko. Zaila izaten da, entrenamendu gogorra behar izaten du eta.

Astean lau entsegu egiten ditut: bi egun Osintxun eta bi egun Eibarren. Bestalde, ez dut elikadura zaindu beharrik.

Eta entseguak nekagarriak izaten dira?

Ez! Dantza lasaiak baldin badira, ez; baina, batzuetan, azkarrek direnean nekatu egiten gara.

Zer behar da dantzari ona izateko?

Dena: erritmo ona izatea, elastikotasuna...

Ze zaletasun dituzu?

Dantza egitea, igerian egitea, patinetan ibiltzea, abestea...

> DANTZAK

Errusiako dantzak eta folklorea gaur ikusgai San Martin plazan 20:30ean hasita

Musikak eta dantzak hartuko dute gaur San Martin plaza. Errusiako Buriatiako folklorea bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da; izan ere, Ulan-Ude hiriko, Buriatiako hiriburua –Errusia siberiarra– Baikalskie Volni dantza taldeak emanaldia egingo du.

Portugaleteko 36. folklore jaialdian parte hartu behar du Buriatiako taldeak; eta aukera aprobetxatu dute Portugaletetik Bergara etortzeko. San Martin plazan dantza taldeko 40 lagun ibiliko dira dantzan; esan behar da dantza erakargarrioz gainera jantzi erregional ikusgarriak ikusteko aukera ere egongo dela. Taldearen dantza erreperitorioan daude Buriatiako folklorea oinarritutako hainbat koreografia.

> ERAKUSKETA

Ziripot tabernan Jone Telleriaren olio-pinturak eta 'Azur'-en argazkiak egongo dira ikusgai udan

Abuztu bukaera arte egongo dira ikusgai artelanak Ziripot tabernan. Jone Telleriak olio pinturak jarriko ditu ikusgai eta *Azur*-ek, ostera, argazkiak. Hortaz, aukera egongo da bi bergararren lanak ikusteko udako egunotan.

Bestalde, Isabel Diez San Vicentek argazki erakusketa jarriko du Aroztegi aretoan. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa eta abuztuaren 15era arte egongo da ikusgai. Abuztu amaieran, ostera, Carlos Gartzia Angulok olio-pinturak jarriko ditu ikusgai Aroztegin. Abuztuaren 27tik irailaren 12ra egongo dira ikusgai aipatutako pinturok. Bada, udan ere kulturarekin gozatzeko aukera egongo da herrian.

MUSIKA > KONZERTUA

Nirvana taldearen kantuak jazz estiloan joko dituzte

'Ostiral musikalak' egitasmoaren azken kontzertua izango da gaurkoa, Espoioan

A.E. > BERGARA

Kurt Cobainen kantuak jazz hizkuntzan. Hori izango da gaurko emanaldiaren oinarria. Nevermind People taldeak Nirvana taldearen *Nevermind* diskoa hartuko du ardatz; disko horretako abestiak eta Jorge Abadiasen kantuak eskainiko dituzte gaurko kontzertuan.

EMAKUMEZKO AHOTSA

Ainara Ortegak –ahotsa–, Jorge Abadiasek –gitarra–, Aritz Luzuriagak –kontrabaxua– eta Hasier Oleagak –bateria eta ahotsa– osatzen dute Nervermind People taldea.

Musika baino gehiago izango da gaurko kontzertua, antzezlan bat dela esan daiteke. Bizi-

penak jarriko dituzte agertokian, batez ere 90eko bizipe-nak. Jazza eta musika garaikidea nahastuko dituzte taldeki-deek.

90EKO HAMARKADA

Lagunek osatutako taldea da Nevermind People. Hala, euren garaia, 90eko hamarkada islatu gura dute. Biziera jakin batzuk margotu eta koloreztatu gura dituzte, oroitzen zuten ez bada ere.

Kantu guztiak Nirvanaren *Nevermind* diskotik hartutakoak dira, eta taldekideek eurek moldatuak.

Ostiral musikalak egitasmoaren azken emanaldia izango da gaurkoa, 22:30ean.



Nevermind People taldeko kideak.

GOIENKARIA

Mari Karmen Markuleta > Misiolaria

"Brisas proiektua geldi dago orain, baina lanak bukatzeko dirua topatuko dugu"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Mari Karmen Markuleta (Oñati, 1950) mesedeetako ahizpa eta medikua da, eta Kolonbian dihardu azken bi urtetan misiolari. Oñatin egon da oporretan. Bogotako egoerari eta parrokiako misio taldearen laguntzarekin esku artean duen proiektuari buruz egin dugu berba harekin.

Bogota hiri-barrutiko Ciudad Bolivarko Brisas auzoan eraikina egiten diharduzue.

Bai, hala da. Hiru solairuko eraikina izango da, eta auzoko bizilagunei askotariko zerbitzuak emango dizkiete: besteak beste, osasun eta hezkuntza arloetako ekintzak egiteko gunea; haurrei eta behartsuei jaten emateko gunea; eta adinduei, alkoholikoiei eta elbarriei laguntza emateko gunea.

Arropategi bat ere egokituko duzue.

Brisas auzoa 3.000 metroan dago. Hotz handia egiten du, eta hara bizi izatera doazen leku epeletatik doaz. Hortaz, neguko arropak behar izaten dituzte: txamarrak, eskularruak, bufandak... Arropategiko material gehiena dohaintzan jasotzen dugu.

Gaixorik dauden bizilagunen-dako zerbitzurik baduzue?

Medikua naiz, eta lehen laguntza ematen diet. Arazo larrinen bat dutenak ospitalera bidaltzen ditugu. Gainera, hilean behin, mediku-brigadak igotzen dira Brisasera. Besteak beste, medikuak, ile-apaintzaileak, dentistak, psikologoak eta abokatuak joaten

dira laguntza ematera. Guztiak boluntarioak dira. Brisasen egin gura dugun eraikinetik zerbitzu horiek guztiak koordinatuko genituzke. Kontuan hartu behar dugu geroz eta pertsona gehiago bizi direla Brisasen eta halako auzoetan. Gehienak biolentziatik ihesi dabiltza.

40.000 euroko aurrekontua du eraikinak. Ze puntutan daude lanak?

Orain arte jaso dugun diruarekin lanak hasi ditugu. Zimenduak jarri dituzte eta bigarren solairua egiten hasita daude, baina teilatua jarri barik dago. Une honetan, lanak geldi daude. Dirua bukatu egin zaigu, eta laguntza gehiagoren bila gabilta.

Eraikina bukatu barik gera daiteke?

Gure asmoa eraikina bukatzea da. Laguntza eskatu dugu Manolo Martinez abadeak eta biok. Brisasen bizi direnek behar-beharrezkoa dituzte eraikina eta bertan emango ditugun zerbitzuak. Badakigu asmo handiko proiektua dela, baina Manolo Martinezen parrokiaren eraikina egin bazuten, Brisasen ere egingo dugu.

Oñatiko parrokiako misio taldearen laguntza jaso duzu.

Bai, eta eskerrak eman gura dizkiet taldeko kideei. Kolonbiara joan aurretik 10 urte egon nintzen Oñatin, eta misio taldeko kide izan nintzen. Hainbat proiektutan parte hartu nuen; besteak beste, Beningo proiektuan. Iaz, Brisasko proiektua bidali nien



Mari Karmen Markuleta, Olakuan.

GOIENKARIA

laguntza eskatuz. Baina Haitiko lurrikara gertatu zen, eta laguntza barik geratu nintzen. Oraingoan jaso dugun laguntza asko eskertzen dut. Alde batetik, Udalaren laguntza eta, beste alde batetik, Bidaurretan egiten dituzten elkartzasun afarietako dirulaguntza jaso ditut.

Bi hilabeteen oporretan egon zara, ezta?

Familiakoekin egon naiz, eta, batez ere, atsedean hartu dut. Kolonbian lan asko dugu, eta lan baldintzak ez dira batere onak. Altitudean lan egiten dugu eta osasun arazoak izaten ditugu, batez ere tentsioarekin. Horregatik guztiagatik, atsedean hartzeko aprobetxatu ditut oporrak.

Zein da Kolonbian bizi duzuen egoera?

Oso larria da, biolentzia eta droga-trafiko handia dago-eta. Bestalde, herrialde aberatsa da baliabide naturalei dagokienez, eta horrek arazo asko sortzen ditu gobernuaren, enpresen eta nekazarien artean.

"Oñatiko parrokiako misio taldeak ematen digun laguntza asko eskertzen dugu"

"Kolonbiako egoera oso larria da, biolentzia eta droga-trafiko handia dago-eta"

txaloak eta txistuak

Errekaldeko zuhaitzak bota dituzte



Errekalde auzoko lanak egin ahal izateko hainbat zuhaitz moztu dituzte egunotan. Hango bizilagun batek haserre eta kezkatuta bidali digu argazkia. "Auzoa konpontzea ondo ikusten dut, baina derrigorrezkoa da zuhaitzak moztea?", esan digu. Urte askoko zuhaitzak direla gogorarazi digu, eta "hausnarketarako" galdera egin digu: "Errekaldeko zuhaitzek institutu aurrean moztu zutenak baino balio txikiagoa dute?".



JULIO BIKUÑA

KULTURA > ARTISAUTZA

ARTasoren azokan natura izango da protagonista

Dozena bat postu jarriko dituzte etzi Arantzazun, 10:00etatik 15:00etara

M.B. > OÑATI

Hirugarren urtez ARTaso elkar-teak azoka egingo du Arantzazuko plazatxoan. Dozena bat postu jarriko dituzte domekan, Santiago egunean, 10:00etatik 15:00etara.

Domekako azokan natura izango da nagusi. Hori horrela, naturari buruzko liburuak erakustez gain, saskigileak, xabogileak, zeramistikak, tailagileak eta kaikugileak batuko dira. Bestalde, kandelak nola

egiten diren erakutsiko du artisaubatek, eta, urtero moduan, Gomiztegi baserrikoek ere parte hartuko dute. "Santiago eguneko azoka indartuz joan da. Ea, bada, domekan nolako erantzuna jasotzen dugun", esan digu ARTaso taldeko kide Kepa Elortzak.

ARTEA SUSTATZEKO

ARTaso elkar-tea orain dela hiru urte sortu zuten, Oñatin eta Arantzazun arte mota ezberdinak sustatzeko asmoz; besteak beste, artisautza, pintura, eskultura eta literatura. Bospasei lagunek dihardute lanean. Elkar-tearen izena arbasoen arrastoak gordetzen dituen mendigune batetik hartu zuten.

AUZOAK > FESTAK

Madalenako jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara

Aurtengo berrikuntza gazteendako puzgarriak izango dira: bihar, 18:30ean hasita

M.B. > OÑATI

Santxolopeztegi auzoan Madalena jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte. 19:30ean hasiko dituzte ospakizunak etxafuego jaurtiketarekin eta bertsolarien emanaldiarekin. 20:30ean Madalena jaitziko da eta 21:00etan auzo afaria egingo dute. Koldok girotuko du afalostea eskusoinuarekin.

Gauerditik aurrera herriko hiru musika taldek kontzertua egingo dute; hain justu ere, La Otra Cara del Rock, Kontaminazion Akustika eta Usako Bombs taldeak igoko dira agertokira.

Bihar, etxafuegoa botako dute eguna hasteko. 13:00etan meza egongo da auzoko ermi-

tan eta bukaeran, *lunch*-a eskainiko dute. Arratsalderako umeendako ekintzak antolatuko dituzte: 17:00etan Gorritik emanaldia egingo du animaliekin eta 18:30ean puzgarriak ipiniko dituzte, aurtengo jaietako berrikuntza. Bihar gaueko erromeria Miren, Agur eta Gorka taldeak egingo du.

Zapatuan jaietara joateko autobus zerbitzua egongo da 03:00etatik 08:00etara.

MUS TXAPELKETA

Domekan meza egongo da 12:00etan. Ondoren, Beltza eta Sakana aizkolariek erakustaldia egingo dute. 16:00etan mus txapelketa jokatu dute. Jaiak 20:00etan bukatuko dituzte.



Harri-jasotzailea iazko jaietan.

ARTXIBOA

> BIRZIKLAPENA

Abuztuan hiru aldiz batuko dute etxean birziklatutako olioia Puntu Berde Mugikorrean

Puntu Berde Mugikorrek ez du oporrik hartuko abuztuan. Etxean batutako olioia birziklatzeko furgoneta plazako aparkalekuan egongo da abuztuaren 7an, 14an eta 28an, 09:00etatik 13:00etara. Besteak beste, etxeko olio erabilia eta beste hondakin arriskutsu batzuk batuko dituzte (pilak, fluoreszenteak, erradiografiak...).

Bestalde, hondakinak gaika sailkatu guren dituztenendako, Urrutxuko garbigunea zabalik egongo da abuztuan; hain justu, eguaztenenetan eta zapatuetan zabalduko dute 09:00etatik 13:30era.


> TURISMOA

'Arrikruz barne-barnetik' irteera berezia egingo dute hilaren 31n eta abuztuaren 14an eta 28an

Arrikruz barrutik ezagutzeko beste bisita berezi bat egingo dute hilaren 31n eta abuztuaren 14an eta 28an. *Arrikruz barne-barnetik* delako bisitan, Aldaola erreka, lur azpiko kanoiak eta ur-jauziak eta Marcel Loubans gelako eszentrika ikus daitezke. Hiruzpalau orduko ibilaldia izango da, eta arropa erosoak, katiuskak eta frontala eroatea beharrezkoa izango da. 16 urtetik gorako interesatuek aldeztu aurretik egin beharko dute erreserba 943 08 20 00 telefonoan. Gehienez 20 pertsona onartuko dituzte talde eta egun bakoitzean.



Petite memoire erakusketako bi koadro.



LEZURI ORMAZABAL

KULTURA > PINTURA

Lezuri Ormazabalen lehen erakusketa Azpeitian, gaurtik

'Petite memoire' erakusketa Biur arropa dendan dago ikusgai irailaren 24ra arte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lezuri Ormazabal oñatiarrak lehen erakusketa zabalduko du gaur Azpeitiko Biur arropa dendan. Hain justu ere, *Petite memoire* erakusketa. Guztira, hamar lan jarri ditu ikusgai, eta horietan haurtzaroko oroitzapenaren gaineko ikuspuntua erakusten du. Erakusketa ikusgai egongo da gaurtik irailaren 24ra arte.

Lehenengo erakusketa izanik, gustura eta, era berean, urduri dagoela esan digu Lezuri Ormazabalek: "Lan handia izan da. Erakusketa ondo antolatzea nire ardura izan da, eta lehena izanda, urduri nago. Halakoetan, norberak egindako lanak balio berezia izaten du. Lan handia egin dut, baina gustura nago".



Lezuri Ormazabal. GOIENKARIA

DATUA

10

LAN

Horiek dira Lezuri Ormazabalek Azpeitiko Biur arropa dendan jarri dituen lanak. *Petite memoire* erakusketan haurtzarokoan margo-tzeko erabiltzen zituen formak erabili ditu.

Hamar lan jarri ditu ikusgai, eta teknika mistoa erabili du. "Antzinako argazkiak hartu ditut, eta, haurtzarokoan margotzeko erabiltzen genituen formak erabiliz, irudi erakargarriak egin ahalegindu naiz. Horretarako, txikitik erabilitako formak, koloreak eta materialak erabili ditut", esan digu. Koadroak egiteko papera eta margoak erabili ditu.

Emaitza ikusita gustura dagoela esan digu: "Ez da oso ohikoa arropa dendan erakusketa ipintzea. Baina, emaitza ikusita, nahiko txukun geratu dela esango nuke".

Lehen erakusketa egin ondoren, beste lan batzuk ditu esku artean. "Une honetan material ona dut esku artean. Ideia interesgarriekin dihardut lanean. Horrekin guztiarekin eta lan egiteko gogoarekin aurrera egingo dut", dio.

ARTE EDERRAK

Lezuri Ormazabalek 23 urte ditu eta Arte Ederrak bukatu ditu. Gainera, diseinu grafikoaren eta multimediaren gaineko kurtsu bat egin du. Sortzailatzat du bere burua. Obra Multiple UPV/EHU saria irabazi du birritan.

oharrak

JAIK

> Trianako jaietako zenbaki sari-tuak

Trianako Jai batzordeak egindako zozketan bi zenbaki saritu dituzte: 386 (Odriozola harategiko produktuekin osatutako saskia) eta 1.390 (Urriagain jatetxean bi pertsonarendako afaria).

DEIALDIA

> Dantzariendako eta danbor-joleendako izenematea zabalik

Irailaren 28an nagusien danborradan parte hartu gura duten dantzariak eta danbor-joleak hilaren 29ra arte eman dezakete izena kultura etxean eta gazteleku-na informazio puntuan. Parte hartu gura duten dantzariak 1993. urtean jaiotakoak izan beharko dute eta danbor-joleak, 18 urtetik gorakoak.

Zozketa irailaren 2an egingo dute Errekaldeko lokalean, 19:00etan.

BIRZIKLAPENA

> Baserrietako plastikoak batuko dituzte martitzenean

Lau puntutan jasoko dute plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta Enpresagintza ikastetxearen atzealdean. Siloa estaltzeko eta belar boletako eta berotegietan erabiltzen den plastiko beltza eta zuria batuko dituzte, besteak beste.



Doctor Deseo taldeko lagunak izango dira.

GOIENKARIA

JAIK > ANDRAMAIXAK

Alkate eta alkateorde txikiak jaiak hasteko

Miren Etxeandia eta Unai Mendieta izango dira jaiari hasiera emango dietenak abuztuaren 14an

Doctor Deseo talde bizkaitarraren kontzertua izango da jaietako izarra, Los Delgasekin batera

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Dagoeneko esku artean dute Andramaixetako egitaraua herri-tarrek, abuztuaren 14tik 17ra bitartean ospatuko ditugun jaietako hitzorduen berri, hain zuzen. Aurrekontu murriztuarekin datoz aurten, baina ekitaldi garrantzitsuenei eta jai giroari eusteko asmoarekin.

Iazko aurrekontuarekin alde-ratuta 28.000 euroko murrizketa

izan du; hala, 73.440 euroko kostua dute ekitaldiek eta horri beste 10.000 euro gehituko dizkiote oholza, aseguru... eta antzeko kontuekin. Diru murrizketak ekitaldi murrizketa dakar eta aurten ez da izango suzko erruberririk Andramari egunean. Gainera, musika talde gutxiago ekarriko dituzte egunean zehar, eta jazz eta blues doinurik ez da entzungo kaleetan.

SARI BANAKETAK

Berrikuntzekin datoz aurtengo jaiak; izan ere, Andramaixak alkate eta alkateorde txikiak iragarriko dizkigute. Miren Etxeandia alkate txikiak pregoia egingo du abuztuaren 14an udaletxe-ko balkoitik eta Unai Mendieta alkateorde txikiak jaiari hasiera iragartzen duen etxafuegoa isiotuko du. Herriko armarrria duen zapiak lepoan dituztela agertuko dira biak, eta Inaxio Garro alkatea izango dute lagun.

Haien zeregina, baina, ez da bukatuko Andramari bezperan, jaietako ordezkariak izango dire-lako. Hori horrela, sari banaketa guztietan hartuko dute parte, hala nola herriko pilotari gazte- en txapelketan eta txirrindulari lasterketan.

KONTZERTUAK ETA IKUSKIZUNAK

Kontzertuei dagokienez, Doctor Deseo bizkaitarrarena izango da aurtengo izarra, Andramari egunean. *Cartografía imposible* azken diskoko kantuek ekarriko dituzte Francis eta lagunek gure artera, eta betiko abestiak ere gogoraraziko dizkigute.

Los Delgas taldekoek, ostera, umorea eta musika bateratuko dituzte abuztuaren 16an, eta *Repor-ker de gases* diskoa aurkeztu. Eta jaietako azken egunean mariatxi doinuak izango dira kalean Real Jalisco taldearen eskutik. Txosna gunean ere izango da musika, tartean ska doinuak eta herriko taldeen kontzertuak.

Antzerkiei dagokienez, ostera, Trapu Zaharrak *Kanping Renove* antzezlan eskainiko du helduendako eta Zirika Zirkus eta Potxin eta Patxin pailazoen umeendako ikuskizunak. Txosna gunean ere izango dute ondo pasatzeko aukera umeek, merienda eta tailerrak antolatu dizkietelako.

KIROLAK ETA ZEZENAK

Kirolak ere izango du lekua Andramaixetan: herriko pilotari gazteen arteko txapelketa; profesionalen arteko pilota partiduak –Mendizabal eta Oteitza, Beloso eta Escuderoren aurka lehen partiduan; eta Berasaluze VIII.a eta Zabala, Saralegi eta Beginoren aurka bigarrenan–; eta Leintz bailarako 72. txirrindulari itzulia.

Eta zezen txikiak gustuko dituztenek izango dute zer ikusia: batetik, errektorearen eskola ibiltaria iaz legez –aurten Herriko Plazan–, zezentxoan aurrean lehenengo pausoak ematen ikasteko, eta bestetik, soka-muturra.

Horiekin batera urtero arrakasta duten ekitaldiak errepikatuko dituzte: mus txapelketa; buruhandien kalejira; elizbira; bandaren saioa; herri bazkaria –plazan egingo duten paella erraldoia bukatu arte–; jolasak Gazte Ekimenarekin... Eta azken egunean jai giroa sortzen gehien laguntzen duten koadrilek saria jasoko dute urtero legez.

ERRETIRATUAK

Batzarra Basotxon pentsioen gainean

Pentsioak zelan defendatu aztertuko dute egunean, hilak 29 (17:30)

M.A. > ARETXABALETA

Gipuzkoako Erretiratu Elkarte eta Euskadiko Federazioa oso kezkatuta daude erretiratu pentsioak direla eta. Hori horrela, manifestua idatzi gura dute pentsio horiek defendatzeko eta, era berean, egia, justizia eta elkar-tasuna eskatzeko gai horren inguruan.

Horren guztiaren berri eman eta hausnarketa bultzatu gura du Basotxo erretiratu elkarte zuzendaritza batzordeak bazkideen artean eta horretarako elkarriketa mahaia edo batzarra antolatu du. Datorren egunean, hilak 29, izango da hori (17:30), Basotxon.

KRISIA AZTERGAI

Erretiratuek asko dutela jokoan diote Basotxoko kideek, "nahiz eta joko horretan parte hartu ez" eta benetan garrantzitsua dela kontua. Hori horrela, Aretxabaleto bazkideen iritzi eta iradokizunak jaso gura dituzte egunean, eta iritzi horietatik guztietatik bideratu gero pentsioen gainean idatziko duten manifestua. Azaldu eta landuko dituzten gaien artean honakoak daude: krisi ekonomikoaren arrazoiak eta eragina; nagusiengan krisi horrek dituen ondorioak eta horren aurrean dituzten zereginak; konponbideen bilaketa...

ENPRESA > LANAK

Copreci lantegiaren handitzea onartu du Foru Aldundiak

Aparkalekua dagoen gunean bi solairuko eraikina egiteari baietza eman diote

M.A. > ARETXABALETA

Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren oniritziarekin, onartu egin du Copreci lantegiaren handitze eskaera. Orain aparkalekua dagoen gunean eraikin berria egiteko asmoa dauka, 30.057 metro koadrori dagokion indus-

trialdean. Horretarako, urtarrilean jarri zuen abian Udalak lurzoru horren izendapen aldaketa eta baietza eman dio orain Aldundiak. Eneko Goia foru bozeramaileak jakinarazi duenez, helburua da Copreci kooperatibak Aretxabaleto industrialdean garatzen duen jardueraren handitze-ko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea.

Udaleko Hirigintza batzordeak gaia aztertu eta eraikitzen has-teko baimena emango dio orain. Udal ordezkarien esanetan, lehenbailehen hasi gura dituzte lanok, abuztuaren seguruenik.

BI SOLAIRU GORA, BI BEHERA

Eraikin berria orain dagoenaren alboan egingo dute, aparkalekuan, hain zuzen. Horretarako, eraiki daitekeen lursailean 7.000 metro koadro gehituko dira eta solairu estalgarriak 28.040 metro koadro izango ditu. Eraikin berriak bi solairu izango ditu, guztira 12 metroko garaiera, eta beste bi solairu lur azpian, kenduko dituzten aparkalekuak jartzeko. Hala, gutxienez 281 aparkaleku egin beharko dituzte.

KOKAPEN ALDAKETARIK EZ

Coprecik 2008an jakinarazi zion Udalari leku premia zeukala –makina astunendako– eta lantegiaren kokapena aldatzeko gogoia zuela. Kokapen aldaketa, baina, oso garestia zela ikusi zuten eta eraikin berria lehengoaren alboan egitea erabaki.



Copreci lantegiko aparkalekua, eraikin berria egingo duten gunea.

M.A.

KIROLAK > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Berrero hirugarren mailara igotzea izango da helburua

Iragarri dute Rafa Barrutia bizkaitarra izango dela ohorezko erregional mailako entrenatzailea

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean egin zuen batzar orokorra Aretxabaleta Kirol Elkarteak, eta bete egin zen Arkupeko Zaria aretoa. 2010-2011 denboraldia aurkeztu zieten bazkide, jokalariei eta entrenatzaileei zuzendaritza batzordeko kideek, eta nobedadeak iragarri.

ERIK BADILLO PRESTATZAILEA

Hastera doan denboraldirako UDAk jarritako helburuen artean daude jokalarien garapen osari jarraipena egitea –garapen emozionala, harremanak...–; *coaching* proiektua abian jartzea entrenatzaileak gertatuz; eta jokalarien txartel kopurua jaistea.

Kirol elkarteak osatzen duen talde bakoitzak bere helburuak ditu gero eta garrantzitsuenetakoak da ohorezko erregionalean jokatu duen taldearena, berri-

ro hirugarren mailara igotzea. Taldea gidatuko duen entrenatzailea Rafa Barrutia bizkaitarra izango da, orain arte Eibarko kirol elkarteetan lan egindakoa, eta prestatzaile fisikoa Erik Badillo aretxabaletarra –entrenamenduen metodologia ere honen ardurapean dago–. Urte askoan talde horren ordezkari lanak egin dituen Jabier Etxebarriak, *Fito*-k, utzi egin du postua eta haren lekua Juanjo Oruetak hartu du. Etxeko jokalariekin egingo diola aurre denboraldiari ohorezko erregionalean iragarri zuten. Horien artean, baina, bi hutsune egongo dira: Imanol Rodriguezena (Gernikara) eta Julen Erañarena (Eibarrera). Ohorezko erregionalean abuztuaren 9an hasiko ditu entrenamendu saioak.

Gazteen Euskal Ligako taldeak ere entrenatzaile berria du:

Juanan Cruz. Eta ordezkari lanak Jesus Mari Arizmendiarririk egingo ditu.

Denboraldiari aurre egiteko aurrekontuaren berri ere eman zuten: 187.140 euroko diru sarrearak aurreikusi dituzte eta 197.896 euroko gastuak. 10.000 euroko alde hori orekatzen joango direla denboraldiak aurrera egin ahal esan zuten, eta gastuetan aurretik datorren zorra –Realak ordaindu barik utzitakoa– sartuta dagoela jakinarazi.

DATUA

198

MILA EURO

2010-2011 denboraldirako aurreikusi duten gastua ia 198.000 eurora iristen da. Sarrerak, ostera, 187.000 eurokoak dira. Aurreikuspenik okerrera egin gura izan dutela esan zuten.

ESANAK

"Lau urterako plan estrategikoa egin dugu herriko kirola bateratzearen alde, eta Udalarekin harremanetan gaude"

Edu Altube > UDAko presidentea



Oso-osoko jokalaria saria jasotako kirolariak garaikurra esku artean dutela.

M.A.

'OSO-OSOKO JOKALARIA' SARIAK

Hirugarren maila:	Iban Astola
Gorengo liga (preferentea):	Jon Iregi
Erregionaleko lehen maila:	Gorka Etxabe

Gazteen Euskal Liga:	Jon Ander Arrizabalaga
Lehen mailako gazteak:	Bixen Meabe
Ohorezko kadeteak:	Asier Lazkano
Lehen mailako kadeteak:	Endika Uribarren
	Jose Magallanes
Ohorezko haurren liga:	Ioritz Saenz de Gordo

Infantil txikiak:	Jon Unanue
Kimuak:	Ioritz Diaz de Gereñu
Areto futbola:	Imanol Carmona
Pilota:	Iago Zuazua
Pilota (etorkizuna):	Asier Davila
Karatea:	Odei Vazquez

Araba ibilbideko semaforoa kendu egin dute

Herriko hegoaldeko sarreran, Araba ibilbidean zegoen semaforoa kendu egin dute. Lehen, bidegurutzea zaintzea zuen helburu –Arkarazora doan bidea–, baina orain, aldatuta dago bide hori eta Udalak erabaki du zentzurik ez zeukala semaforo horrek: "Traba egiten zuela ere esaten zuten bizilagunek". Hori horrela, kendu eta horren ordez zebrabidea adierazten duen seinalea jarri dute, oinezkoak pasatzeko lekua dela jakinarazteko.



M.A.

OSPAKIZUNA > SANTIAGO JAIK

Santixauak ospatuko dituzte Goroeta eta Ugastegi auzoetan

M.A. > ARETXABALETA

Herriko bi auzotan, Goroeta eta Ugastegi, ospatuko dituzte Santixauak aste bukaeran.

Goroetan, kanpai errepika, etxafuego eta txikiteoekin hasiko dituzte gaur (19:00). Bihar, ostera, umeendako jolasak eta mus eta briska txapelketak egingo dituzte (18:00) eta afaria izango dute auzoko bizilagunek (21:00), dantzaldi eta guzti. Domekan, meza esango dute (12:30) zaindariaren omenez eta gero mokadutxo eskaini elkartutakoei (11:30).

Urkulutik gora dagoen Ugastegi ere gaur hasiko dituzte jaiak etxafuegoekin eta Santa Kurtz ermita loreekin apainduta. Bihar, meza esango dute (12:30) eta mokadutxo jan gero. Gazteek, gainera, sokamuturra eta tirolina izango dituzte bertan. Bazkaltzeko Goiko Etxeko ganbaran elkartuko dira –bazkaria norberak, edariak bertan– eta arratsaldean mus eta briska jokoak, umeen jolasak eta dantzaldia egingo dira. Domekan, pontxea hartu eta gero Santa Kurtzen (12:30) Deguriatik bueltatxo egingo dute.

> IKASTAROA

Lana eta familia bateratzeko saioa egingo dute KZgunean

Lana eta familia bizimodua bateragarri egiteko erakundeek banatzen dituzten laguntzen berri emango dute gaur, hilak 23, KZgunean egingo duten saioan (11:00).

Dirulaguntza motak, bete beharreko baldintzak, tramitazioa zelan egin eta beste hainbat kontu irakatsiko dituzte. Interesatuak Markole auzoan dagoen KZgunera jo behar dute (943 25 23 51).

> DEIA

Muru Alde elkarteak herritarrek ino ospatu gura du San Inazio jai

San Inazio du zaindari Muru Alde elkarteak eta urtero egiten du afaria ospatzeko. Aurtun, baina, bazkide ez diren herritarrek ere eman dezakete izena. Datorren egubakoitzean da afaria, hilak 30, elkarrean –35 euro–. Lehenengo, trikitilariekin txikiteoa egingo dute eta gero afaltzeko elkartu Amets Arzallus eta Aitor Sarriegi bertsolariak lagun dituztela. Izena emateko 677 49 77 28 zenbakira deitu behar da.

> LIBURUTEGIA

Abuztuko bi astetan itxita egongo da, 9tik 20ra bitartean

Liburutegia zabalik egongo da abuztuko lehenengo eta azkeneko asteetan. Uztailan izan duen ordutegia izango du egun horietan: astelehen eta martitzenetan goizez eta arratsaldean zabalik (10:00-13:00 eta 17:00-20:00); eta eguazten, eguen eta egubakoitzetan goizez bakarrik (10:00-14:00).

Abuztuaren 9tik 20ra bitartean oporrak hartuko dituzte eta itxita egongo da.

KULTURA > 'ERREKAN GORA'

Atxorrotzen amaituko da jaialdia bihar, Bizardunak-en emanaldiarekin

Egun osoko irteera da; 11:00etarako egin dute hitzordua plazan, mendira oinez igotzeko

Nafarren kontzertua 17:30ean hasiko da; herriko tabernetan jarraituko du gero

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, amaituko da aurten *Errekan gora* jaialdia. Eki-men bereziarekin emango dio amaiera Aitzorrotz kultura elkarteak; hain justu, Bizardunak musika talde ospetsuak bihar, zapatua, Atxorrotzen egingo duen emanaldiarekin.

Elkarteko Iñaki Kortazarren esanetan, "*Errekan gora 2010* bukatzeko festa modukoa antolatu da. Eskoriatzako toki emblematico moduan Atxorrotzen egitea erabaki genuen; guretzako sekulako erronka izan arren, jendearen erantzuna ona izango delakoan gaude". Hara heltzeko modu bakarra oinez igota izango bada ere, gaineratu du arazoak dituzten lagunendako lur orotako ibilgailuak jarriko dituztela. 11:00etan eta 13:00etan irtengo dira plazatik.



Taldea, kontzertu baten Bergaran.

GOIENKARIA

Eguna 11:00etan hasiko da. Ordu horretan dute hitzordua eginda Herriko Plazan mendira igotzeko. Ordubetik inguruko igoraren ondotik, Atxorrotzen egin

diren indusketen gaineko azalpenak eskainiko dizkie Iñaki Sagredok han batzen direnei.

Bazkaldu ostean, Bizardunak talde nafarraren kontzertu

ikusgarria egongo da zelaian. Denetarik dago talde horretan: 9 gizon, 9 ahots, folkean aritutakoak, rockzale ezagunak, azken horien lagunak...

Emanaldia ez da Atxorrotzen amaituko, herriko tabernetan jarraituko du iluntzean; eta gauean, Elvis Kaino disko-jartzailearekin jai bukaera egingo dute.

Egitaraua

11:00 Atxorrotzera irteera Herriko Plazatik.

12:30 Indusketen inguruko jardunaldia Atxorrotzen. Jarraian, trikitalariak eta Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariak. Bazkalostean bokadiloak eta edaria egongo dira bertan, nahi duten guztientzat. Bazkalostean trikitalariak eta bertsolariak giroa animatuko dute.

17:30 Bizardunak taldearen kontzertua. Hori bukatutakoan jendea herrira jaisteko gonbita egin dute antolatzaileek, han jarraituko du-eta jaiak, Bizardunak taldeak tabernaz taberna egingo duen emanaldiarekin.

22:30 Azkoaga Enea hotolean Elvis Kaino Djarekin jai bukaera.

OHARRA: Antolatzaileek jakinarazi nahi dute Atxorrotz mendira heltzeko modu bakarra oinez igota izango dela, bertarako sarrera guztiak itxita egongo direlako ibilgailuendako. Jende guztia animatzen dute goizetik Atxorrotzera oinez joan eta eguna bertan pasatzera.

KULTURA

Salgai dago Likinianori buruzko komikia

M.B. > ESKORIATZA

Felix Likinianoren gaineko *Urbietako kaleko borroka* izeneko komiki liburuxka salgai dago dagoeneko herriko honako saltokietan: Ibarraundi museoa, Dorleta paper-dendan, estankoa, Gozo-txikin, Inkernu tabernan, Aldatza tabernan eta Igehik inprimategian. Hiru eurotan dago salgai esandako liburuxka.

Uztailaren 10ean egin zuten komikiaren aurkezpena Eskoriatzako udaletxean. Potxo Argitalzuloa argitaletxearen eskutik, 1936ko uztailaren 17an eta 18an Donostiako Urbietako kalean Felix Likiniano eskoriatzarrak eta haren bikotekide Casilda Mendezek eta Manuel Chiapuso anarkistak bizitako borroka herrikoia azaltzen da bertan.

GIZARTEA > GIZARTE ZERBITZUAK

Elkarteez laguntzak eska ditzakete

Dokumentazioa abuztuaren 16a baino lehen aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro ofizialean

M.B. > ESKORIATZA

Gizarte zerbitzuetan jarduerak garatzen dituzten elkarteendako dirulaguntzak emateko deialdia zabalik dago. Udaletxeko erregistro ofizialean aurkeztu beharko da laguntzak eskatzeko dokumentazioa, abuztuaren 16a baino lehen.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek eskatu ahaliko dituzte, baldin eta jarduerak Eskoriatzako udalerrian garatzen badi-

tuzte. Horrez gain, euren jarduna gizarte zerbitzuen alorrean garatu beharko dute, eta horien helburua izango da parte-hartzea eta gizarte laneko boluntarioak bultzatzea, herritarren arteko elkartasuna, eta jarraian adierazitako talde edo kolektiboetan gizarteratze arazoak dituztenei laguntzea: haurrak, gazteak, emakumea, ezinduek, hirugarren adina, gutxiengo etnikoak, drogazaleak edo preso ohiak.

EUSKARA

Bestalde, euskararen normalizaziorako dirulaguntzen deialdia ere egin du Udalak. Eskoriatzako pertsona juridikoek euskarazko errotuluak jartzeko edo irudi korporatiboan euskara erabiltzeko laguntzen eskaerak azaroaren 12ra arte aurkeztu daitezke.

UDALA > OPORRAK

Abuztuko ordutegia udal zerbitzuetan

Udaletxeko harrera zerbitzua 10:00etatik 13:30era egongo da zabalik; kultura etxea eta liburutegia itxita egongo dira

M.B. > ESKORIATZA

Udalak abuztuan izango duen ordutegiaren berri eman du asteon. Udaletxeko harrera zerbitzua goizez egongo da zabalik, 10:00etatik 13:30era; Gizarte Zerbitzuak, berriz, itxita egongo dira abuztuaren 9tik 20ra bitartean, eta Hirigintza Zerbitzua abuztuaren 9tik 30era. Udaltzaingoa dagokionez, goizeko ordutegian egingo du lan, 08:00etatik 15:00etara. Telefo-


noz deitzea nahiago dutenek 943 71 44 07 zenbakira deitu beharko dute.

KIROLDEGIA ZABALIK

Kiroldegia zabalik egongo da uda osoan. Barruko igerilekua ordutegia honako hau izango da: astelehenean egubakotzera, 08:00etatik 21:00etara; zapatuetan, 10:00etatik 20:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 09:30etik 14:30era. Kanpoko igerilekua astelehenean zapatuta 10:00etatik 20:00etara erabili ahal izango da; eta domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:30era.

LIBURUTEGIA ITXITA

Bestalde, kultura etxea eta liburutegia abuztu osoan itxita egongo dira eta Ibarraundiko atea zabalik egongo dira astegunetan, 09:00etatik 14:00etara.



Errukizko Amaren parrokiaren obrak dihardute.

A.E.

PARROKIA > OBRAK

Pietatearen erretaula Antzuolara ekarriko dute

Antzuolako parrokiaren obrak egiten dihardute; Gabonetarako amaituko dituztela espero dute

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Abenduan hasi ziren parrokiaren obrak. Baina, elizako aurpegia berritzeaz gain, lan berri bat ere izango du Errukizko Amaren parrokiak: garai baten Antzuolan zegoen Pietatearen erretaula, gaur egun Donostiako diozesiar museoan dagoena, ekarriko dute Antzuolara.

"Gotzaindegian izan ginen, eta han dago erretaula bat lehen Antzuolako zena, Pietatea. Oso polita da, eta pentsatu dugu Antzuolara berriro ekartzea eta elizan jartzea; ez oraingo erretau-

lan, baizik eta aldamen baten", adierazi du Basili Ormazabal parrokiako taldeko kideak. Hala, edonork ikusteko moduan egongo da erretaula berria.

Aprobetxatuko dute museoan lekuz aldatu behar dutela artelana Antzuolara ekartzeko.

LANAK MARTXA ONEAN DOAZ

Parrokiako lanak bi zatitan egin behar zituzten: kupula, alde batetik, eta korua, bestetik. Bada, lehenengo zatia amaituta dagoela esan daiteke. "Kupulako lanak amaitu dituzte eta orain alda-

mioak beste aldera eramango dituzte", azaldu du Ormazabalek. Fase hori samurragoa izango denez, espero dute Gabonetarako lanok amaituta egotea.

Bestalde, zoruko baldosa batzuk hondatuta daude eta aldatu egin behar dituzte; horretarako, baina, indusketak egin behar dituzte, aztarna arkeologikorik dagoen edo ez ikusteko.

IRAILEAN, ABADE BERRIAK

Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena badoaz Antzuola eta Bergaratik. Hala, irailetik aurrera abade berriak izango dira Antzuolan: hain zuzen, Jon Molina aretxabaletarra eta Xabier Amutxastegi debarra.

KIROLA > AKE

Futbol taldeak batzar orokorra egingo du uztailaren 30ean Olaranen

Oporren aurretik entrenamenduak hasi gura dituzte, baina oraindik ez dakite entrenatzailea nor izango den

A.E. > ANTZUOLA

Antzuola futbol taldeak batzar orokorra egingo du datorren egubakoitzean, uztailaren 30ean. Hainbat gai izango dituzte mahai gainean, baina garrantzitsuena datorren denboraldi-rako aurreikuspena izango da.

OLARANEN IZANGO DA

Batzar orokorra Olaranen izango da; lehenengo deialdia 18:30erako egin dute eta bigarrena 19:00etarako.

Jose Angel Fernandez lehendakariak adierazi du aurten denboraldiko emaitzak aztertuko dituztela; bestalde, aurrekontuak onartuko dituzte; eta, amaitzeko, denboraldi berriko aurreikuspena egingo dute. Fernandezek gaineratu du zuzendaritza taldean lan egiteko jendea behar dutela.

Gaur egun lau lagun daude zuzendaritza taldean: Jose Angel Fernandez, Pablo Olalde, Patxi Godoi eta Cruz Madariaga. Hortaz, laguntza eskertuko dutela azaldu du Fernandezek.

ENTRENATZAILE BILA DABILTZA

Erregional preferente mailan entrenatzaile lanetan ibili diren Igor Larreak eta Ibon Unanuek utzi egingo dute entrenatzaile postua. Hori horrela, zuzendaritza taldea entrenatzaile berriaren bila dabil.

"Txarrena da ez dugula gazte mailako taldea izan; hortaz, ez dugu behetik igotzeko inor", dio Fernandezek.

Denboraldi berriari begira jokalaria badituzten galdetuta, Fernandezek dio denboraldia hasteko lain badituztela, baina lau edo bost jokalaria berri ekarri gura dituztela. Euren nahia da uztail bukaeran hastea entrenamenduak.

LAU TALDE OSATU NAHI DITUZTE

Denboraldi berriari begira lau talde osatu gura dituzte: talde nagusia, gazte mailakoa, nesken taldea eta infantil mailako taldea. "Egiteko asko" dituela dio Fernandezek.

ENTRENATZAILEA

Andoni Azkargorta Eibarren hasiko da

Andoni Azkargorta antzuolarrak Eibarko gazte mailako euskal ligako taldea hartuko du denboraldi berrian. Abuztuaren 2an hasiko ditu entrenamenduak Azkargortak. Abuztuaren zehar bost lagunarteko jokatu dituzte; eta liga irailaren 11n hasiko dute. Gainera, esan digu azken lagunartekoa Aretxabaletan jokatu dutela, irailaren 4an, gazte mailako liga nazionalako taldearen aurka.

Azkargortaren laguntzailea Amadeo Bilbao izango da -UDA taldean jokatuakoa- eta prestatzaile fisikoa, Joseba Plazaola markinarra.

JAIK > NAGUSIAK

Anelkar gustura domekako jaiarekin

Mundumirarako erosi zuten generoa atera zuten domekan eta pintxo solidarioak banatu zituzten

A.E. > ANTZUOLA


Anelkarkoak pozik daude domekan jaso zuten erantzunarekin. Pintxo solidarioak eman zituzten Herriko Plazan, jaietako giroa aprobetxatuta. Lehenengo datuen arabera 1.200 euro inguru jaso zituzten dohain moduan.

40 kilo hirugihar eta 13 kilo txistorra banatu zituen Anelkarrak domekan; hori guztia, sagardoarekin lagunduta.

Domekan batutako dirua Kongoko eta Senegalgo proiektuetara bideratuko du Anelkarrak.

MUNDUMIRARAKO EROSITAKOAK

Domekan banatutako generoa Mundumira jaialdirako erositakoa izan zen. Aurreikusitakoa baino gutxiago saldu zuten Mundumiran Anelkarrak, AKEk eta Oinarin dantza taldearen txos-



Anelkarkoak pintxoak banatzen domekan.

J.A.

nak. Hala, sobratutako generoa izozkailuan sartu eta herriko beste jai batzuetarako erabili dute: besteak beste, Kalebarrengo jaiak eta Ondarrekoak. Zapatuko herri-

afarian banatutako solomoa ere Mundumirarako erositakoa izan zen. Saldu barik geratu den generoa inguruko artean saltzen dabilta, hutsean ontziratuta.

oharrak

IZENEMATEA

> Gaueko euskara eskoletan izena emateko epea zabalik

Dagoeneko zabalik dago gaueko euskara eskoletako izenematea. Interesatuak udal-letxera edo liburutegira jo behar dute izena ematera irailaren 15a baino lehen. Eskolak urrian hasiko dira.

DEIALDIA

> Uztailaren 31n kontzertuak Herriko Plazan

AHTren kanpaldia delata antolatutako kontzertuak dira. Uztailaren 31n, zapatua, izango dira, 22:00etan, Antzuolako plazan. Bergarako Emon eta Arrasateko La Banda del Abuelo taldeek joko dute. Kanpaldia uztailaren 26tik abuztuaren 1era izango da.

AZPIEGITURAK > ITXITAKO ERREPIDEA

Udalak kargu hartuko dio Diputazioari

Udalbatzako hiru alderdietako zinegotziak bat etorri ziren mozioa onartzean; martitzenean elkarretaratzea egingo dute herritarrek Gasteizen

T. MADINA/E. MENDIBIL > ARAMAIO
Urtarrilaren 31tik itxirik jarraitzen duen A-2620 errepidearen egoeraren gaineko ez ohiko bilkura izan zen eguaztenean udaletxean. Errepidearen arazoari konponbidea ematen ez zaiola ikusirik, udalbatza osatzen duten hiru alderdietako ordezkariak bat etorri ziren mozioa onartzeko orduan. Nabaria da auziaga-

tik herritarrek duten haserrea eta horren lekuko ditugu Asier Agirre alkatearen hitzak: "Arabako Diputazioko ordezkariekin bile-ra asko eta asko izan ditugu azken hilabeteotan eta hitz politak besterik ez dugu jaso, soluziorik ez. Diputatu nagusia eta errepide diputatua ere ez dira oraindik azaldu hona, arazoa bertatik bertara ikustera. Eta erantzukizun

zuzena auzi honetan Diputazioak dauka, Adif-ena, Sustapen Ministerioarena, subsidiarioa da. Ez dira gauza izan errepide berria egiteko lanak abian jartzeko ere. Denbora guzti honetan ikusitakoa ikusita, herritarren konfiantza agortuta dago".

HIRU PUNTUKO MOZIOA

Esan bezala, mozioa aho batez onartu zuen udalbatzak eguaztenean. Lehenik eta behin, Diputazioari, A-2620 errepidea konpontzeko lanak lehenbailehen hastea eskatzen diote eta, era berean, errepide alternatiboan

egin beharreko hobekuntzak egitea. Errepide alternatiboari irtenbidea bilatzea eta eguneko mantenuan Diputazioak esku hartzea ere ezinbestekotzat jotzen dute.

Mozioko bigarren puntuari dagokionez, Sustapen Ministerioari, Aramaion sortutako kalteei aurre egitea eskatzen zaio eta ondorioz errepide nagusia, auzoetatik zehar doan desbideratzea eta herriko sare ezberdinak (saneamendua, urak eta baserrietarako bideak) konpontzea.

Azkenik, eguaztenean onartutakoaren arabera, Arartekoa-

ri gertatutakoaren gaineko txosten bat bidaltzea adostu zuten zinegotziek, besteak beste, herritarrek jasaten diharduten kalteak zehatz azalduta.

Onartutako mozioa Diputazioari, Batzar Nagusietara eta Sustapen Ministeriora ere bidaliko dute.

MARTITZENEAN, GASTEIZERA

Herritar dezente batu zen eguazteneko bilkuran, udaletxean. Martitzen goizean Gasteizera joan eta Diputazioaren aurrean bizi duten egoera salatzea adostu zuten.

Arraburu baserriko etxebarratarrak Pirinioetan

Argazkikoak Aramaioko Arraburu baserriko Etxebarria familiako kideak dituzue. Zapatuan, hilaren 17an, Hiru Erregeen Mahaira (2.444 metro) igo ziren elkarrekin. Hiru ordu eman zituzten mendian gora, eta bazkaltzeko egin zuten geldialdixoa tartean. Fermin zen *espedizioko* beteranoena, 82 urterekin (erdian, argazkian), eta Jokin gazteena, 19 urterekin. Alboko argazkia Linzako aterpetxeko sarreraren ondoan aterata dago, tontorretik bueltan. Zorionak, guztiei, eta eutsi sasoiari!



oharrak

KINTADA

> 1945ean jaiotako ospakizuna irailaren 18an

Egun osoko irteera egingo dute Bizkaiko kostaldera. Bazkaria Sukarrietan izango da. Izenematea, uztailaren 31ra arte. 60 euro ordaindu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0001 50 0011 148540.

TXIRRITOLA

> V. Postal Lehiaketa

Ohi duenez, postal lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak. Posta arrunt bidez bidali behar dira kultura etxera, irailaren 15erako. Irabazleak Aramaioko jatetxe baten bigi lagunendako afaria eskuratuko du.

UDALA

Ur mozketak datorren astean

E.M. > ARAMAIO

Udalak aditzera eman duenez, ur ihesak kontrolatzeko lanetarako ur mozketak egin beharko dituzte datorren astean. Astelehenean, hilaren 26an, goizez, Untzillan, Suñan eta Bolinburun moztuko dute ura eta arratsaldean, berri, Zabolán.

Martitzenean, Azkoagan (Zabolán eta Altzagan izan ezik) eta Barajuenen kenduko dute ura, goizez bakarrik.

Eguaztenean, hilaren 28an, Urubarrin eta Altzagan goizetik kenduko dute ura; eta, azkenik, eguenean, hilaren 29an, goizez Arragan, Arriolan eta Arexolan eta arratsaldean Etxaguenen egingo dute mozketak.

KULTURA > MUSIKA

Or2tan Aretxabaletako musika taldeak emanaldia egingo du gaur Sastiñan

Kantu propioak jotzen dituzte, eta konposizio instrumentalak dira nagusi; bizpahiru urte daramatzate elkarrekin, entsegutan

E.M. > ARAMAIO

Ekaineko barikuetako musika emanaldiei nolabaiteko jarraipena eman nahirik, Udalak Or2tan taldearen kontzertua iragarri du gaurko, barikurako, Sastiñan. Oraingo honetan gertuko talde bat izango da, gainera, protagonista: Or2tan talde aretxabaletarra dugu gaurko gonbidatua. Otsailean egin zuten aurkezpen kontzertua, Arkupen, otsailaren 12an, eta poliki-poliki han eta hemen jotzen hasi dira.

BOST TALDEKIDE

Jendaurrean ibilbide laburra izan arren, bizpahiru urte daramatzate elkarrekin, entsegutan.

Txus Gutierrez (gitarra), Oier Sarasua (saxoa, klarineta, gitarra eta ahotsa), Andoni Arana (gitarra eta kora), Iker Iglesias (baxua) eta Iban Peñakoba (bateria) dira Or2tan taldeko kideak.

FUSIO MUSIKA NAGUSI

Txus Gutierrez gitarra-jotzaileak hauxe dio: "Estiloari dagokionez, gauza nahiko arraroa egiten dugula esango nuke: heavy ukituak hemen, rock ukituak han, folka, funka... denetik pixka bat. Gure ezaugarrietako bat fusioa izan daiteke. Gustura gaude elkarrekin jotzen, saltsan, eta agertokian hori islatzen ahalegintzen gara".



Or2tan talde aretxabaletarrak Sastiñan joko du bariku iluntzean.

Abesti propioak jotzen dituzte emanaldietan, eta instrumentalak dira nagusi. Hain zuzen ere, zazpi abesti instrumentalak dira eta beste bi Sarasuak abestutakoak. Baliteke bertsioren bat edo beste ere errepertorioan gordetzea. Aretxabaletako lehenbiziko emanaldi hartan, esaterako,

Joe Satrianiren *If I could fly* kantua jo zuten Or2taneko kideek.

Lehen aldia dugu Aramaion jotzen dutena. Txus Gutierrezek hauxe diosku: "Betiere pozgarria da zuzenean jotzeko gonbidapena jasotzea. Gainera, xarma berezia duen aretoa da Sastiña...". Hitzordua gaur, 20:00etan.

ELGETA > JAIK

Datozen bi egunotan Santixau jaiak ospatuko dituzte Goimendiko auzotarrek

Abuztuan, berriz, Salbador eta San Roke ospakizunak izango ditugu herrian; egitarauak ia lotuta dauzkate auzotarrek



Goimendi auzoan soka-dantza egingo dute aurten ere.

ARTXIBOA

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Zapatuan hasiko dituzte jaiak Goimendi auzoan. 21:30ean berakatz-zopak banatuko dituzte auzoko plazan, eta 23:00etatik goizaldera bitarte dantzaldia izango dute Miren eta Agurtzane trikitilariekin.

Ekitaldi nagusiak biharamunean, domekan, egingo dituzte. Mezarekin eta urteroko sokadantzarekin hasiko dira. Bertsoan Joxe Agirre eta Gorrotxategi arituko dira; musikari lanetan, aldiz, Jon Ostolatza eta Unai Andonegi. Herri kirolak ere izango dituzte: harri-jasotzaile lanetan Goenatxo III.a eta aizkorarekin Barberena eta Muxika.

SALBADOR ETA SAN ROKE

Jakin dugu Salbador eta San Roke kaleetan ere ari direla jaiak gertatzen. Egitaraua jarraian.

Ospakizunak, auzoz auzo

Uztailak 25, Santixau eguna

11:00 Meza.
12:00 Soka-dantza Kezka taldearekin.
12:30 Bertsoak. Joxe Agirre eta Gorrotxategi. Ondoren, musika Jon Ostolatzarekin eta Unai Andonegirekin.
13:00 Haur jolasak.
18:00 Herri kirolak.
18:30 Bolo txapelketa.
19:00 Bertsoak.
20:00 Zozketa eta erromeria.

Abuztuak 6 - Salbador eguna

12:30 Meza Salbador ermitan.
13:00 Pintxoak ermita ondoan.
21:30 Auzo afaria.
22:30 Dantzaldia Gardokirekin.

Abuztuak 16 - San Roke eguna

12:00 Meza.
13:00 Lunch-a soinu-jotzaileekin.
13:30 Triki-poteoa.
14:30 Auzo bazkaria eta erromeria.

Maalako igerilekuek arrakasta izan dute aurten ere

Urteroko irudia da dagoeneko. Umeak zain egoten dira, eta aurten astelehenean eta martitzenean egon dira igerilekuak Maalan. Gehienbat, astelehenean -martitzen arratsaldean ilundu egin zuen-eta- hondartza itxura handia hartu zuen Maalako parkeak. Toallak, bainujantziak, hondartzako aulkiak... ondo hornituta joan ziren elgetarrak igerileku ondoan arratsalde pasa egitera. Udalekuetako umeek ere egin dituzte urteroko ur jolasak. Martitzen goizean izan zen hori.



Hiru igerileku ipini ditu aurten Udalak Maalan.

L.Z.

LEINTZ GATZAGA > PROIEKTUA

Arlabango plana onartu du Aldundiak

450.000 euroko dirulaguntza emango du

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak Landagipuzkoa32 egitasmoaren bitartez banatuko dituen dirulaguntzen berri

eman du asteen eta Gatzagara ere iritsiko da laguntza hori. Arlaban gaineko planaren hornikuntza eta saneamendu proiektua da onartutakoa, Udalaren eskaeraz.

Arlaban gaineko plan berezia aurrera eramateko ur hornikuntzaren arazoa konpondu behar da lehenengo, eta egindako azterketek depositu baten beharra dagoela adierazi dute. Hala, onartutako dirulaguntzarekin depositu berria egingo dute Gatzagain inguruan, behean dagoen depositutik ura bonbeatu gora eta saneamendu hodiak sartuko dituzte.

Proiektu horren inbertsioa 618.000 euro da eta Aldundiak 450.000 euro inguruko dirulaguntza emango du.

PLAN BEREZIA ONARTZEKO

Arlaban gaineko planak lur eremu hori arautu gura du, eta turismo eta aisialdiarekin zerikusia duten kontueterako egokitu. Orain herrian dagoen Jakion enpresak ere bertan izan dezake kokalekua, handitze prozesu batek eskatuta. Hori guztia egin baino lehen, eta era berean, Gatzainuzketako mendi etxeen beharrik auzotako ur hornidura bermatu beharra daukate. Hori egingakoan, orain dela hainbat urte iragarritako plan berezia onartuko dute.

Aldundiak aginduta, Etorlurerek hornikuntza eta saneamendu proiektuaren inbertsio plana egingo du. Era berean, plan horietan aurreikusitako inbertsioak gauzatuko ditu.

BIGARRIN PROIEKTUA

Landagipuzkoa32 egitasmoak Gatzagan finantzaturako bigarren proiektua da hori, pilotalekuaren estalkia berritzea eta ixtea onartu zuen-eta orain hilabete batzuk. Lan horiek herriko jaiak pasatutakoan hasteko asmoa dute.

ELGETA > KIROLA

ESAITen mendi martxa abuztuaren 4an iritsiko da

Herri bazkarian 200 bat lagun elkartzea aurreikusten dute antolatzaileek

L.Z. > ELGETA

ESAITen mendi martxa Elgetatik igaroko da aurten, eta egun osoko jaia antolatu dute. Besteak beste, Euskal Herriko trontza txapelketako kanporaketa bat jokatu da herrian, eta betizu bat erreko dute herri bazkaria egiteko. "Txartelak laster ipiniko ditugu salgai 15 eurotan", adierazi du Elgetako koordinatzaile Sebas Arantzabalek. Zeharkaldi guztia egiteko ez dutenek aukera dute etapa bakarra ere egiteko.

DE VEGA, TXAPELDUN

Oso bestelako kirol kontuekin jarraituz, Txomin de Vega ere albiste dugu. Zapatuan Gipuzkoako BTT jaitsiera jokatu zen Zarautzen, eta De Vegak elite mailako lehenengo postua eskuratu zuen. Gipuzkoako elite mailako txapelketa dugu, beraz, mendiko bizikleta jaitsieretan.

Egitaraua

Abuztuak 4 - ESAITen festa

11:00 Ongietorria udaletxean.
13:00 Trontza txapelketa.
14:30 Bazkaria.
18:00 Bolo txapelketa.
19:00 Triki-bertso poteoa.

ELGETA > ABUZTUA

Abuztuan ordutegi bereziak izango dira hainbat tokitan

L.Z. > ELGETA

Abuztua opor sasoa da, eta herriko hainbat zerbitzutan ordutegi bereziak izango dituzte. Udaletxean, esaterako, 08:00etatik 13:00etara emango

dute zerbitzu. Atea itxita aurkituz gero txirrina jotzeko eskatzen dute edo 943 76 80 22 telefono zenbakira deitzeko. Gainerako zerbitzuen ordutegiak jaso ditugu ondorengo taulan.

UDAL ZERBITZUAK

Harrera orokorra	08:00-13:00
Gizarte Zerbitzuak	09:00-13:00 (astelehen eta eguenetan)
Udal Liburutegia	itxita hil osoa

OSTALARITZA

Bolatokia	itxita 8tik 22ra, eta domeka guztietan
Espaloia	itxita 9tik 22ra eta arratsaldean 16:00etatik 19:00etara
Ostatu	itxita 15tik 31ra, eta arratsalde guztietan
Iñaki	itxita 17tik 22ra + martitzen eta eguen arratsaldean
Patxi	itxita domeka arratsaldetan
Haizea	zabalik hil osoan 09:00etatik 21:00etara
Barrenengua	zabalik hil osoan
Eguzkitza	zabalik hil osoan
Hotela	zabalik hil osoan

KOMERTZIOAK

Ugari-Beatriz	zabalik hil osoan 08:30etik 13:00etara
Markel denda	zabalik hil osoa 08:00etatik 13:00etara
Botika	zabalik hil osoan 09:00etatik 13:30era
Erdiko denda	zabalik 09:00etatik 12:00etara. Itxita hilaren 16tik 22ra
Goikoetxe harategia	zabalik 08:00etatik 13:30era + bariku arratsaldean
Ana liburu-denda	itxita hilaren 1etik 29ra

ZIKLISMOA > FRANTZIAKO TOURRA

Tourmaleteko maldak ibarre

Debagoieneko jende asko egon da egunotan Tourra bertatik bertara jarraitzen

Iban Velascok onartu digu desiratzen dagoela alaba jaio berria ezagutzeko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Txirindulariek askotan errepikatzen duten topikoa da Tourra Tourra dela, ez dagoela bizikleta gainean horrelako beste hitzordurik. Eta egunotan Tourmaletoko maldetan batu den zale kopuruak erakusten du hori; tartean izan dira Arizmendiko udalekuetan egon diren 80 neska-mutikoak, eta Mikel Lizarraldekin antolatutako bidaian joan diren beste 80 lagun ere; martitzen iluntzean elkartu ziren guztiak Bareges-en, egun hauek batera igarotzeko asmoz.

Lasterketa barrutik bizi izaten dabilen Iban Velascodako, berriz, Tourra ez da beste hiru asteko itzuliak baino gogorragoa: "Ikustekoa da zenbat zalek jarraitzen duen lasterketa, hori bai, baina gogortasun aldetik ez da Giroa baino gogorragoa".

ALABA IKUSTEKO DESIRATZEN

Arrasatekoa amorratuta zegoen eguazteneko atsedean egunean: "Martitzenean ondo pasa nahi nuen Tourmaletetik, etxeko zaleen aurrean ondo ibili. Baina egunotan taldearendako lan egitea egokitu zait, eta ordaindu egin dut hori". Hala, Arrasatekoak onartu digu nahi baino luzeagoa egiten ari zaiola Tourra: "Izandako hiru erorikoek ez didate mesederik egin, eta dagoeneko hamar egun pasa dira alaba jaio zenetik; hura ezagutzeko irrikan nago".



Mikel Lizarraldekin eta konpainiak antolatuta bi autobus abiatu ziren martitzenean Argeles Gazost-era. Han etapa ikusi eta Bareges-era joan ziren arratsaldean, egueneko etapa ikusi...



Arizmendiko udalekuetako 80 gazteak, begiraleekin batera, kanpin dendak batuta eta Tourmaletoko magalera egin beharreko etaparako gertu.



Alaitz, Ainhoa, Nahia, Ane eta Arrate
Arrasate

"Ederto ari gara pasatzen. Bizikletan egin beharreko etapak nork bere erritmora egiten ditu, eta, alde horretatik, begiraleek ez gaituzte batera estutzen. Momentu onenak zeintzuk diren esatea ez da batera erraza; bizikleta gainean oso momentu politak bizi izan ditugu, eta baita gauetan ere; lasai egoten garen momentua izaten da hori".



Joxerra, Luis Mari, Jose Felix eta Balentin
Oñati eta Arrasate

"Ahal badugu urtero etortzen gara Tourra ikustera, eta geure ziklistak animatzera. Argeles Gazost gainean ikusiko dugu gaurko etapa, eta egueneko ikustera Tourmaletara joango gara. Contadorren eta Schleck-en arteko polemika? Hor ondo egin zuen Contadorrek, zerbait gertatzen den bakoitzean denek geratu behar badute... hori ez da Tourra".



Mikel Lizarralde
Oñati

"Aurten ere koadrila galanta batu gara, batez ere bizikletan etorri direnekin elkartuko garela. Guztira 160 lagun! Ea Velascok Tourmalet ondo igotzen duen!".

koen topagune orain ere



stera.



Tjallingii, Cancellara, Velasco eta Pauwels, Soulourrera bidean.



Oñatiko koadrila, Argeles Gazost-en, ziklisten zain.



Iñigo Lariz, gazteekin etapa hasteko gertu!



Roberto Arantzabal bergarra, telebista ikusteko antena jartzen.



Tourreko egunkaria erreparatzen.



Tourmaletoko magalera iritsita, udalekuetakoak karpa muntatzen.



Dutxa freskagarriaren ostean, bizikletak txukun jartzen.

ARGAZKIAK: XABIER URTZELAI



Tomas Agirrezabal eta Miguel Martin
Oñati

"Sukaldari lanetan ibiliko gara biok, eta egunotan nahikoa lan izango dugu hauei guztiei jaten ematen. Gainera, bizikletan etorri diren gazteek apetitu ederra izango dute. Iaz baino janari gehiago erosi dugu, guztira 160 lagun izango garelako. Gaur hirugiharra eta bestelakoak prestatuko ditugu parrillan, eta biharko oilaskoa dugu".



Jon de Andres
Arrasate

"Egunak aurrera joan ahala geroago eta ohituago gaude bizikletan ibiltzera, eta hobeto amaitzen ditugu etapak; desiratzten gaude Tourra ikusteko".



Mariano Altube
Oñati

"Iaz ez nuen Tourrera etortzerik izan, baina beste urte batzuetan egon naiz, eta banuen gogoan. Tourmaletoko etapa ikusi, eta lagun artean egon, hori da asmoa".



Iker Eskibel
Eskoriatza

Espainiako mendiko bizikleta txapelketan parte hartu beharrean, Eskibelek nahiago izan du udalekuetara joan: "Askoz ere hobeto pasa behar dut hemen".

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA ARGAZKI LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

Har ezazu parte!

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren eta irailaren 17a bitartean.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otorlora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (Iehen, Arcelorren bulegoak), 20570. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdina da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAN eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAKO artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak



1. saria

Canon EOS 1000D argazki kamera digitala eta KB photoestudio emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 10 megapixel.
- Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View sistemarekin
- Flash eta guzti.



2. saria: Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

BABESLEA:



Laguntzaileak:



Canon

GURE AMETSA
JATETXEA




Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

Goienkaria
ASTELEHENEN, aste bukaera osoa

Goiena.net

Goitb
Goiena Telebista

ARRASATE
IRRATIA



> **PABLO MAEZ**
Musikari gazte eta saridunak kontzertua egingo du Oñatin > 32



> **BOSNIARA**
Ain_1 taldeak bi emanaldi egingo ditu Bosnian, Gorazden > 33

> **JULEN IÑARRA**
Bergararra da, eta Peruko indigenen artean lau hilabete eman ditu; orain, dokumentala egin nahi du > 34



San Frantzisko Borjako Oñatiko Madalena ermitan liburua atzo, eguena, aurkeztu zuten Madalena ermitan.

MIRIAN BITERI

Oñatiko Madalenen izan zen XVI. mendeko maizterra gogoan

500 URTE Liburua argitaratu dute asteen San Frantzisko Borjakoaren jaiotzaren harira

BANAKETA Santxolopeztegi auzotarren artean debalde banatuko da; salgai ere egongo da

MIRIAN BITERI > OÑATI
San Frantzisko Borjakoaren jaiotzaren 500. urteurrenaren harira, santua Oñatiko Santxolopeztegi auzoan bizi izan zeneko garaiari buruzko liburua aurkeztu zuten

atzo auzo horretako Madalena ermitan. Jose Antonio Azpiatzuk idatzi du liburua eta itzultze lanez Jerardo Elortza arduratu da.


Jaio zenetik 500 urte pasa dira, eta, Santxolopeztegin bi urte eskas egin bazituen ere, auzotarrek gogoa izan dute beti, eta, hori dela-eta, dirua jarri dute fraidearen egonaldia gogorarazteko. Jose Antonio Azpiatzuren esanetan: "Auzoko kideek eskatu ziguten eta dokumentazioa batzen hasi nintzen, Jerardo Elortzarekin batera. Oñatiko egonaldiaz gain, haren ibilbidearen berri ematen dugu".

CARLOS V.A ERREGEAREN GORTEAN
San Frantzisko Borjako XVI. mendeko noble ospetsua zen. Gandian jaio zen, 1510ean. Gandiako dukearen semea eta Alejandro VI.a aita santuaren birbiloba zen. Txikitatik erlijioari oso lotuta bazegoen ere, familiak Carlos V.a

erregearen gortera bidali zuen. Erregearen emazte Portugalgo Isabel hil zenean, hilotza Granadara eroateko agindua jaso zuen. Hara iristean Isabelen gorputz ustelduta ikusi eta horrek bere konbertsioa eragin zuen. Alargun geratu zenean, Erromara joan zen; ordurako harremana zuen jesuitekin eta Loiolako San Ignazio izango zenarekin.

Aita Santuak kardinal egitea gura zuen, baina berak ez zuen nahi eta, ihes eginda, Oñatira iritsi zen. Hasieran, Araotzarren jauregian egon zen, baina luxu handikoa zela-eta Madalenako ermitara joan zen bizit izatera. 1551n eta 1552an egon zen.

Tarte hartan egin zuten abade; Calahorrako gotzaina etorri zen horretara. Jerardo Elortzaren arabera, "gero predikatzen eta dirua eskatzen eman zuen denbora; euskara apur bat ikasi zuela



LIBURUA

San Frantziskori buruzko liburua

> **Izenburua:** *San Frantzisko Borjako Oñatiko Madalena ermitan.*

> **Egilea:** Jose Antonio Azpiatzu.

> **Itzultzailea:** Jerardo Elortza.

> **Argazkiak:** Jose Fernandez.

> **Maketazioa:** Jabier Arriaran.

> **Orrialdeak:** 40.

eta sermoiak egiterakoan itzultzaile bat erosten zuela esaten da, jendeari euskaraz emateko. Bergaran esan zuen meza batera 10.000 pertsona joan ei ziren. Inguruko jendearekin oso harreman estua ei zuen". Oñatitik alde egin eta handik hainbat urtera, 1965ean, Jesuiten Konpainiaren arduradun bihurtu zen. 1572an hil zen eta 1671n, santu egin zuten.

TURISMO BULEGOAN SALGAI

Atzo aurkeztutako liburuan, San Frantzisko Borjakoak erabilitako eta egun ermitan dauden ohe zatia, kanpaitxo eta biografiaz hitz egiten da; baita garai hartan ermitako kanpoaldean zegoen arbolaz eta gaur egun geratzen den enbor zatiaz. Bestalde, auzotarrek debalde jasoko dute liburua eta gainerakoek Oñatiko turismo bulegoan eta liburu-dendetan erosi ahal izango dute.

MUSIKA > KONTZERTUA

Pixie Dixie taldearen jazza domekan Monterron parkean

Udazabal 2010 ekimenaren barruan, Kataluniako jazz taldeak joko du domekan Arrasaten

Errepertorioak entzuleak eramango ditu New Orleansko hirira eta jazzaren urrezko garaira

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Udazabal 2010 ekimenaren barruan, etzi, jazz doinuek hartuko dituzte Monterron parkeko bazterrak. Kataluniako Pixie Dixie taldeak joko du, domekan, 22:30ean.

BOST LAGUNEN TALDEA

Pixie Dixie bost lagunek osatzen dute. Ibilbide luzea duen taldea da, eta taldekideek lan handia egin dute musikaren pedagogian.

Dixieland –jazz-hot estilo bat da– eta jazz klasikoa eraman dute Pixie Dixie taldekoek agertokietara; eta, modu horretan, kontzertu didaktikoak eman. Izan ere, zuzeneko jazz-aren kontzeptu ludikoak eta dibertigarriak ez du zertan egon behar liskartuta proposamenaren kalitatearekin.

Kataluniako taldearen musika errepertorioak eramango gaitu New Orleansko kaleetara, New Orleans zaharretik Ellingtonera. Basie moduko swingaren izen eta izar handiak ekarriko dituzte gogora kataluniarrek; eta, baita, jazzaren urrezko



Pixie Dixie taldeko kideak.

GOIENKARIA

garaiko kompositore handien enona ere.

BI DISKO ARGITARATU DITUZTE

Bi disko ditu editaturik Pixie Dixie taldeak eta agertoki ugari-tan jardundakoak dira. Hori horrela, pisu handiko taldea dela esan daiteke Pixie Dixie.

Gainera, esan behar da musika modernoaren pedagogiarekin bat egiten dutela taldekideek. Musikariak estudioetako grabazioak eta taula gaineko lanak uztartzen dituzte. Eta, horrez gain, musika modernoaren pedagogian dihardute lanean kataluniarrek.

DANTZA ETA MUSIKA EMANALDIA

India eta Daguestan herrialdeetako folkloreak gozatzeko aukera izango da datorren martitzenean, hilaren 27an, 22:30ean.

Panghat taldea –India– folklore dantzetan espezialista da; 25 dantza-mota baino gehiagotan espezializatuta daude. Izan ere, dantza horiek bertako dantza maisuekin ikasi dituzte taldekideek. Dantzez gain, arropen ere garrantzi handia ematen diete; gainera, erabiltzen dituzten jantziak taldekideek eurek diseinatutakoak dira. Ikuskizun koloretua eta bizia izango da, duda barik.

KAUKASOKO ESPIRITUA

Lezginka –Daguestan– dantza taldeak Kaukasoko folklorea oinarritutako koreografiak eskainiko ditu Monterronen. Gainera, dantza baten izena ere bada Lezginka; hain zuzen, Kaukasoko sinbolotzat dute dantza hori.

Koreografia bakoitza ez da, baina, herri-dantzen kopia hutsa; bai, ordea, historiaren zati bat.

UDAZABAL 2010

Arrasateko Udalak udaro antolatzen duen ekimena da Udazabal: dantza, zinema, zirkua, musika eta antzerkia uztartzen dituzten ekitaldiak dira.

MUSIKA > KONTZERTUA

Pablo Maezek folk doinuak ekarriko ditu Murtziatik

Oñatiko San Anton kaleko plazatxoan egingo du zuzeneko hilaren 31n, 22:30ean

A.E. > OÑATI

Murtziatik Oñatira AEBetako folk doinuak ekarriko ditu Pablo Maez abeslari gazteak. *Kalean 2010* egitarauaren barruan antolatuta, uztailaren 31n, zapatuan, izango da kontzertua San Anton kaleko plazatxoan, 22:30ean. Oñatin aurkeztuko duena bere lehenengo lana izango da.

Zortzi abestik osatzen dute Murtziatik Oñatira AEBetako folk doinuak ekarriko ditu Pablo Maez abeslari gazteak. *Kalean 2010* egitarauaren barruan antolatuta, uztailaren 31n, zapatuan, izango da kontzertua San Anton kaleko plazatxoan, 22:30ean. Oñatin aurkeztuko duena bere lehenengo lana izango da.



Pablo Maez abeslaria.

GOIENKARIA

> KONPARTSAK

Bergarako Magdalena erraldoiak saria irabazi du Azpeitian

Joan den domekan, Azpeitian, umeen euskal festa eguna ospatu zuten. Umeez gain, baina, erraldoiak ere protagonista izan ziren; eta, tartean, protagonista nagusia Bergarako Magdalena erraldoia.

"Erraldoi txapelketa egiten da Azpeitian. 12 konpartsa aurkeztu ginen eta bakarkako sailean guk irabazi genuen saria", azaldu du Ibon Unamuno erraldioen konpartsa kideak. Taldekako saria, ostera, Txantreako konpartsa eraman zuen.

Zigor Ruiz de Eginu sartu zen Magdalenaren barruan eta hark egin zuen *valls* dantza. Ez da lehenengo aldia sari hori irabazten dutena bergararrek.

> KALEAN 2010

Surfaren olatuak Oñatira iritsiko dira, sardina eta guzti

Uztailari agur esateko, eta abuztua modu ezin hobean hasteko, surf festa egingo dute Oñatin, azkeneko urteetako ohiturari eutsiz.

Datorren egubakoitzean, hilaren 30ean, izango da. San Anton kaleko plazatxoan kostaldeko itxura hartuko du. Sardinak erre eta salgai jarriko dituzte. Horrez gain, musika eta irudiz girotuko dute arratsaldea.

Musika jartzen DJ Makala zarautzara ibiliko da. Bestalde, *Txo* musikariak askotariko bideoak jarriko ditu plazan bertan. Betiere, musikaren eta bideoen ardatza surfa izango da.

Kalean 2010 egitaraua zabalduko du surf festak; abuztuan beste hainbat ekitaldi izango dituzte Oñatin.

MUSIKAN HASI BERRIA

Pablo Maez oso gaztea da, 22 urte besterik ez du, eta, gainera, musika munduan hasi berria da. Inork gutxik ezagutzen zuen Maez orain dela hilabete batzuk *Cantigas de mayo* nazioarteko bakarlariren txapelketara aurkeztu zenean. Baina aurkeztu eta irabazi egin zuen murtziarrak lehiaketa. 4.000 euro jaso zituen.

60KO ETA 70EKO UKITUAK

Maezen musikak 60ko eta 70eko hamarkadetako ukituak ditu; zehazki, AEBetako folk doinuek oinarritutako musika egiten du murtziarrak. Folk akustikoa egiten du, eta ingelesez abesten du Maezek.

Adituek diotenez etorkizuneko bakarlarria izan daiteke Maez. Bada, Oñatin, bertatik bertara zuzeneko kontzertuan entzuteko aukera egongo da.



Arrasateko Ain-1 taldeko partaideak Bosniara doaz datorren astean.

AIN_1

MUSIKA > AIN_1

Ain_1 taldeak kontzertu bi eskainiko ditu datozen egunotan Bosnian

Uztailaren 30etik abuztuaren 7ra bitartean Gorazde hirian egingo den XIII. Adiskidetasunaren Nazioarteko Jaialdian parte hartuko du

MIRIAN BITERI > ARRASATE

SOS Balkanes elkarteak gonbidatuta Bosniara, Gorazde hirira, doa Arrasateko Ain_1 musika taldea datorren astean, XIII. Adiskidetasunaren Nazioarteko Jaialdian parte hartuzera. Bertako kide Amaia Pavonek azaldu digu uztailaren 28an irtengo direla Bartzelonatik, eta Kroaziako Dubrovnik hiritik pasa ostean Gorazderantz abiatuko direla. Jaialdia uztailaren 30etik abuztuaren 7ra

izango da, eta bertan, Europa, Asia, Amerika eta Ozeaniako 1.500 taldek joko dute. Giza balioak lantzeaz gain, Bosniako errealitatea ezagutzeko aukera izango dute horren bidez arrasatearrek.

GONBIDAPENA

Pavonek jaialdian izateko aukera zelan sortu zen gogorarazi du: "Emakumeakplazara.org webgurearen aurkezpenean jotzen egotzen eta SOS Balkanesko orde-

kari bat zegoen han; ideia proposatu zigun Internet bidez eta ez genuen askorik pentsatu".

Kontzertu bi emango dituzte abuztuaren 2an eta 4an. Horrez gain, bidaiari zehar gauzatuko diren zenbait proiektutan ere parte hartuko dute; tartean, SOS Balkanesek eraiki duen parke baten izango dira, bertako umeekin.

Ain_1 hainbat neskaren ekimenez jarri zen martxan 2007an. Proiektua musika eta poesia uztartzeko asmoz sortu bazen ere, gaur egun dantza, ikus-entzuzko baliabide eta agertoki bakoitzaren araberrako elementuekin osatutako ikuskizuna lantzen dute.

NATURA > ERAKUSKETA

Kostaldeko irudi ederrak ikusi ahalko dira gaurtik Bergarako Aroztegi aretoan

M.B. > BERGARA

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Isabel Diez San Vicente bilbotarraren erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan. Naturaren gaineko 24 argazki egongo dira han erakusgai, Galizia eta Euskal Herri arteko kostaldean ateratakoak guztiak.

Diez San Vicentek azaldu digu irudiak koloretan daudela eta 2005 eta 2008. urte bitartean aterata daudela. Horrez gain, gaineratu du erdiak diapositiben bidez atera zituela eta gainerakoak argazki digitalaren bitartez.

2002. urtean hasi zen Diez San Vicente argazkilaritzan: "Biolo-

go marinoa naiz eta algen gaineko liburua egiten hasi nintzenan konturatu nintzen argazkilaritza gustuko nuela; pasio bilakatu da. Naturarekin lotutako irudiak ateratzen ditut". Ibilbide motza badu ere, sari asko irabazi ditu, eta baita erakusketak antolatu ere. Dena dela, Debagoienan ez da orain arte egon.

ABUZTUAREN 15ERA ARTE

Erakusketa abuztuaren 15era arte egongo da Aroztegin honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.



Ikusi ahalko den lan bat.

ISABEL DIEZ

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

UZTAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ARRIKRUTZERAKO
BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ELHUYAR-EN
PANPINA ETA JOKUA

Bidali KLUBA PANPINA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ESAIT-EKO
KAMISETA GORRIA

Bidali KLUBA EUSKALTEL
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



EUSKALTELEKO
KAMISETA

Bidali KLUBA EUSKALTEL
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT
PACK TXURIA

Ukabi
informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Julen Iñarra > Gatazka eta Bakearen Komunikazioan diplomaduna

"Hedabideak gatazken aktore direnez, konponbiderako ereduak sor ditzakete"

Peru eta ashaninkak -bertakotribu indigenak- begijota ditu Julen Iñarrak. Urrian dokumental bat grabatu gura du bertan, ashaninken lurralde-gatazka eta gatazka sozio-politikoak erakusteko helburuarekin. Ashaninken egondakoa da eta bizitako esperientzia "izugarriena" izan dela dio. Hori bai, dirulaguntza behar du joateko; Jaurlaritzaren erantzunaren zain dago orain.

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Gatazka eta Bakearen Komunikazioan diplomaduna, Julen Iñarra bertakoa balitz bezala bizi da Vic-en (Katalunia). Gustura dabil, baina etxeko falta igartzen du: "Hermina sentimendu pisutsua da", dio.

Comunicación de conflictos y de la paz diplomatura. Azal ieza-guzu zer ikasi duzun bertan.

Mundu osoko gatazkek aztertzen dira, haien logika ulertzeko. Helburua da modu arduratsu eta zentzudunez informatzea, betiere elkartasun eta justizia soziala oinarri hartuta. Kazetaritzarekin zerikusia ez duten gaiak ere jorratzen dira; esaterako, gatazken psikologia eta GKEen funtzionamendua.

Hego Amerikan izan zara. Zer dela-eta?

Lau hilabete eman nituen Hego Amerikan. Lehendabizi, Perura heldu nintzen, eta, hegoaldea ezagutu ostean, oihan zentrolean hilabete eta erdi pasatu nuen ashaninka tribuko indigenekin: bizitzan izan dudana esperientzia izugarriena izan da.

Ondoren iparraldeko oiharentz abiatu nintzen txalupa bidez, Amazonasera heldu arte. Kolonbiako muga pasa ostean, urezko autobidea hartuz Brasilgo kostaldera heldu nintzen, azken hiru asteak eta Gabonak hondartzan pasatzeko.

Betidanik erakarri zaitu gatazken mundu horrek?


Egia esan, ez. Dokumental sozialak izan ditut gustuko, baita komunikazio politikoaren arloa ere. Baina denborarekin konturatu naiz oraingoz hor dagoela nire tokia.

Zein da ikasitakotik alderik gustukoena? Eta txarrena?

Alderik onena da mendebaldeko gizarteak dauzkagun aurreiritzi askotan oker gaudela konturatzea. Eta alderik txarrena, berriz, ez dela batere erraza gure proiektuak aurrera ateratzeko dirulaguntzak lortzea; horrek izugarri mugatzen gaitu.

Zergatik joan zinen Kataluniara? Zenbat urte daramatzazu bertan?

Euskal Herrian ikasteko nota heltzen ez zitzaidalako etorri nintzen. Baina diplomatu ostean hemen geratzea erabaki nuen. Egun, bertako herritar bezala ikusten dut nire burua, hemen etxean bezala sentitzen naiz. Sei-



JULEN IÑARRA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Gatazka eta Bakearen Komunikazioan diplomatura, Bartzelonako UAB unibertsitatean. **Zaletasunak:** Bidaia-tzea eta musika. **Gustuko liburu bat:** *Las venas abiertas de América Latina*, Eduardo Galeanorena. **Iku-**

si duzun azken filma: *En tierra hostil*. **Musikari bat:** Eddie Vedder. **Kazetari bat:** Antoni Castel. **Bisitatu-tako lekuri politena:** Peruko oihan amazoniarra. **Amets bat:** Gustuko lana topatzea. **Zeren falta igar-tzen duzun Euskal Herritik:** Janaria eta nire jendea.

garren urtea da Vic-en, Katalunia sakonean. Heldu nintzenezan atzerritartzat ninduten, baina, gaur egun, bertakoa banintz bezala tratatzen naute. Urteek aurrera egin ahala hemengo bizitzara ohitu eta oso gustura nagoen arren, ez du esan nahi etxeko falta igartzen ez dudarik: hermina sentimendu pisutsua da.

Orain bertan, baduzu proiekturik esku artean?

Dirulaguntza bila dihardut. Nire asmoa da urrian berriz ere Perura bueltatzea. Peruko oihan-ean barrena bizi diren ashaninkek dauzkaten gatazkek bildu nahi ditut dokumental baten.

Dokumentalak *Oinez doan oihana* izango luke izenburu, eta ashaninka tribuek dituzten lurralde-gatazka eta gatazka politiko-sozialak erakutsiko lituzke. Bakarrik joateko asmoa daukat eta hiru hilabetez izango nintzateke bertan. Horretarako, baina, ezinbestekoa zait dirulaguntza. Egin dut eskaera Eusko Jaur-laritzan eta erantzunaren zain nago; laster esango didate.

Zein uste duzu dela komunika-bideek gatazken konponbide-an joka dezaketen papera?

Adituek diote kazetaritza lau-garren boterea dela, eta ez zaie arrazoirik falta. Nire ustez, komunikabideak esku artean dituzten gatazken aktore bat gehiago dira. Injustiziak salatzeke botereaz gain, gatazka eta indarkeria ego-erei konponbidea aurkitzeko formulak zabal ditzakete, eta hori oso garrantzitsua da.


Noiztik bizi zara etxetik kanpo? Nolako esperientzia ari da izaten?

Orain sei urte etorri nintzen, eta bizitzan hartu dudana erabaki onenetakoa izan da. Gaztea naiz eta uste dut orain dela garaia hara eta hona ibiltzeko. Izan ere, etorkizunean Euskal Herrian ikusten dut nire burua.

Nolakoa da Katalunia?

Bizi izateko bestelako lanak ere egin behar izango dituzu...

Musika areto baten egon nintzen lanean hiru urtez; oso gustuko dut musika. Kirol-denda baten ere egon naiz eta egun, jatetxeetan egiten dut lan.



Oñatiko **Iratxe** eta **Aitor** bihar ezkonduko dira Olabarrieta auzoko elizan. Ospakizun bazkaria Zelai Zabal jatetxean egingo dute. Euren koadrilakoek mezua bidali diete: "Ondo pasa biharko eguna eta eztei-bidaian. Zoriontsu izan aurrerantzean".



Bergarako **Ziortza** eta Errenteriako **Unai** bihar ezkonduko dira Pasai Donibaneke udaletxean. Ondoren bazkaria egingo dute Mugaritz jatetxean. Eztei-bidaia Greziako irletara egingo dute. Familiakoek partetik: "Ondo pasa ezazue eta patxo bana".



Oñatiko **Iñaki Elkororibe** eta Zumarragako **Vero Mayo** bihar ezkonduko dira Oñatiko Bidaurrreta monasterioan. Bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute. Lagunek ondo pasatzeko asmoa dute. "Zorionak, bikote".



Arrasateko **Alaitz Gonzalez** eta Elorrioko **Xabier Otaño** bihar ezkonduko dira Arginetako ermitan. Eztei-bidaian Turkia eta Grezia aldera joango dira. Koadrilakoek mezua bidali diete: "Zorionak, bikote, eta ondo pasa ezazue bihar".



Antzuolako **Jessika Escobar** eta **Jabi Peñalba** hilaren 31n ezkonduko dira Antzuolako udaletxean. Ospakizun bazkaria Arteaga jatetxean egingo dute. Ondoren, itsas bidaia egingo dute. Etxekoek eta lagunak partetik, "zoriontsu izan zaitezte, eta mila patxo".



Bergarako **Maria** eta Elgoibar-ko **Jon** bihar ezkonduko dira Bergarako Santa Marina elizan, 13:30ean. Bazkaria Elgoibar-ko Belaustegi jatetxean egingo dute. Ondoren, itsas bidaia egingo dute Mediterraneoan. "Zorionak, bikote, etxekoek partetik".



Bergarako **Santi Tardon** eta Gasteizko **Maitane Vega** bihar ezkonduko dira Gasteizko San Pedro elizan. Ospakizun bazkaria Haritz Ondo jatetxean egingo dute, eta eztei-bidaia New Yorkera eta Mexikora. Etxekoek eta lagunak partetik, "zorionak!".



Arrasateko **Haitz Arrieta** eta **Nekane Lopez** bihar ezkonduko dira, 12:30ean, Arrasateko udaletxean. Ospakizun bazkaria Bergarako Lasa jatetxean egingo dute. Lagunen partetik, "zorionak, bihotz-bihotzez, eta ondo pasa".



Arrasateko **Maider Rodrigo** eta **Markel Familiar** bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, ospakizun bazkaria egingo dute etxekoekin eta lagunekin Gatzagako Gure Ametsan. Guztion partetik, "zorionak, bikote!".

hildakoak


- **Maria Nieves Zubia Diaz de Mendibil.** Arrasaten, uztailaren 18an. 86 urte.
- **Cirila Ruiz Martin.** Oñatin, uztailaren 18an. 80 urte.
- **Luis Zufiria Zugasti.** Arrasaten, uztailaren 18an. 70 urte.
- **Julian Bernal Diaz.** Bergaran, uztailaren 19an. 60 urte.
- **Maria Bollar Mallabia.** Arrasaten, uztailaren 21an. 87 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera.



Aretxabaletako **Arantxa Etxeberriak** eta **Alberto Errastik** urrezko ezteiak beteko dituzte bihar, eta seme-alaba, guraso, anaia-arreba eta ilobekin ospatuko dute. "Beste 25 urte elkarrekin bete ditzazuela osasuntsu eta zoriontsu. Zorionak, etxekoek partetik".



Arrasateko **Oscar Tapia** eta **Leire Lezeta** bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Euren lagunak mezua bidali diete. "Zorionak, *pareja*. Oso ondo pasa ezazuela bihar eta eztei-bidaian. Ea, bada, elkarrekin egun ederra pasatzen dugun!".

URTEURRENA

Maria Teresa Aguirrezabal Aranzabal

Bigarren urteurreneko meza domekan, uztailaren 25ean, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Sor Mercedes Elorza Guridi

Kurpide baserrikoa

Zumarragan hil zen 2010eko uztailaren 15ean, 86 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, uztailaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Gure bihotzean izango zaitugu



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



Uztailak 23-30

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARRASATE

> New Orleans zaharretik jazzaren Urrezko Arora, Pixie Dixie taldearekin

Kataluniako Pixie Dixie taldeak kontzertua egingo du etzi, domeka, Monterron parkean (22:30). Dixieland eta jazz klasikoa eraman dute agertoki askotara. Zuzeneko jazzaren kontzeptu ludiko eta dibertigarria lantzen dute.

Musika



ESKORRIATZA

> Bizardunen eta DJ Elvis Kainoren saioekin bukatuko da Errekan Gora

Aitzorrotzen Errekan Gora egitaraua bukatzeko, Nafarroako Bizardunak folk taldearen emanaldia izango da bihar, zapatua, Atxorrotzeko zelaian (17:30), eta DJ Elvis Kainok musika ipiniko du Azkoaga Eneako terrazan (22:30).

Musika



ELORRIO

> Graffiti Classics, betiko soka musika 21. mendera ekartzen duen taldea

Sokako laukotearen betiko kontzeptua 21. mendera egokitu dute Graffiti Classics-eko musikariek, eta kontzertu berean, garai eta jatorri askotariko musikarien lanak jotzen dituzte. Bihar, zapatua, joko dute Tola jauregian (22:30).

Wildlife Photographer of the Year saria (2008). Honako erakusketa abuztuaren 15era arte izango da zabalik.

Aroztegi aretoan. Orduetgia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

BERGARA

> Montse Roldan arrasatearrak erakusketa dauka Nahikarin

Montse Roldan arrasatearrak margo erakusketa du Nahikari tabernan. Hainbat formatutako 16 oliok osatzen dute eta, batik bat, paisaia urbanoa erakusten dute. Luis Laskurainen ikaslea eta Arrasateko Margo Taldeko kidea da Roldan. Honakoa da berak bakarrik egiten duen lehenengo erakusketa.

Masterrekako Nahikari tabernan.

BERGARA

> Jose Telleriaren olio-lanak eta 'Azur'-en argazkiak

Ziripot tabernan Jone Telleriaren olioak eta Azur-en argazkiak jarri dituzte erakusgai. Abuztu bukaera arte izango da erakusketa.

Bidekuruzeta kaleko Ziripot tabernan.

OÑATI

> Eskulangintza azoka eta erakusketa egingo du ARTasok

Santiago egunean egiten duen bezala, aurten ere ARTaso taldeak eskulangintza erakusketa eta azoka egingo du Arantzazuko basilika aurrean.

Etzi, domeka.

Musika

ARAMAIO

> Aretxabaletako Or2tan taldeak kontzertua egingo du

Aretxabaletako Or2tan taldeak musika emanaldia egingo du. Askotariko estiloak lantzen dituzte: rocka, jazz, folka, funka...

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

OÑATI

> Pablo Maezek amerikar folk estiloko musika egingo du

Kalean 2010 programaren barruan, Pablo Maez murtziarrek kontzertua egingo du. 60-70 hamarkadetako musikaren eragina jasotzen du, folk amerikararen eragina, alegia.

Hilaren 31n, zapatua, San Anton plazatxoan, 22:30ean.

BERGARA

> Nirvanaren musika, jazzaren hizkuntzara eramana

Ostiral musikalkak programaren azkeneko emanaldia izango da gaur, egubakoitza. Nevermind People taldeak joko du. Nirvana taldearen kantu ezagunenak jazzaren hizkuntzara moldatzen dituzte.

Gaur, egubakoitza, Espolioan, 22:30ean.

ELORRIO

> Audience boskoteak kontzertua egingo du

Gernikako Audience boskoteak kontzertua egingo du, Musikaire egitarauaren barruan. Rocka egiten dute, eta lau disko dauzkate argitaratuta. Taldekideak honakoak dira: Hannot Mintegia (ahotsa, gitara eta tronpetak), Gaizka Insuntza (ahotsa, gitara, saxoa eta pianoa), Ager Insuntza (ahotsa, gitara, biolina, pianoa eta pedal steel gitara), Mikel Sagarna

(bateria, perkusioa eta harmonika) eta Andoni Lauzirika (baxua).

Gaur, egubakoitza, Argiñetan, 22:30ean.

ELORRIO

> Tony Zenet abeslari malagarraren kontzertua

Tony Zenet (Malaga, 1967) aktorea eta abeslaria da: melodikoa, sentimental... Eszenaratze ausarta eta atsegina proposatzen du: jazz banda bikain batek lagunduta, hainbat musika estilo landuko ditu, andaluziar koplatak

abiatuta flamenkoa, swinga, New Yorkeko jazz, Argentinako tangoa edo Kubako sona jomuga dituela.

Etzi, domeka, Tola jauregian, 22:30ean.

BERGARA

> Kojon Prieto y los Guajolotes taldea, Pol-Polek antolatuta

Pol-Pol taberna itxi egin behar dutela-eta, despedida ospatzen hasiko dira. Hala, hasteko, Kojon Prieto y los Guajolotes taldeak joko du tabernan bertan.

Gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 23:00etan.

PROPOSAMENA



BERGARA

> Siberiako Buriatia Errepublikako dantza tradizionalak egingo ditu hango talde batek

Errusia siberiarreko Buriatia Errepublikako folklore emanaldia egingo du Baikalskie Volni dantza taldeak (argazkian). Euren hizkuntzan, Baikaleko olatuak esan nahi du taldearen izenak. Ulan-Ude hiriburutik dator taldea, 1961ean sortu zuten eta 40 lagunek osatzen dute. Euren errepertorioan, Buriatiako folklorea oinarritutako koreografiak daude; ikusteko erakargarriak eta ederrak dira.

Gaur, egubakoitza, San Martin plazan, 20:30ean.

Erakusketak

BERGARA

> Isabel Díez San Vicenteren argazki erakusketa

Isabel Díez San Vicente (Bilbo, 1966) itsas-biologo eta argazkilariak erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

Argazkilaritza eta natura maite ditu, eta naturaren gaineko erretratuak ateratzen ditu. Nazioarteko hainbat sari eta aipamen irabazi ditu; tartean, GDT-European

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

FAKIRRAREN OHEA

Jarri al zara inoiz etzanda 7.000 iltzeren gainean? Ausartzen al zara?

Lasai, ez duzu eta odolik ikusiko. Eta gainera, minik zergatik ez dugun hartzen ulertuko duzu.



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 01 24 78



Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Orduetgia
Astelehenetan ixita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

Hartuko nauzu zure etxean?

'COUCHSURFING' Ostatuan dirurik gastatu barik bidaiatzeko aukera ematen duen sare soziala da

POLONIARA BIDAIA Amaia Pavon arrasatearrak ez zuen euro bat bera ere gastatu ostatu hartzen

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Oporretara goazenean, zalantza barik, ostatu hartzen gastatzen dugu diru gehien. Bada, badaude gastu hori ekiditeko moduak eta aukerak: horietako bat da *CouchSurfing* izeneko sare soziala. Amaia Pavon arrasatearrak ondo ezagutzen du sare sozial hori eta dagoeneko egin du bidaia bat edo beste munduan zehar, osatu hartzen sosik gastatu barik.

BIDAIARIEN SARE SOZIALA

CouchSurfing-en filosofia honela laburbil daiteke: Poloniara joan nahi dut abuztuaren 1etik 5era, hartuko nauzu zure etxean? Erantzuna *CouchSurfing*-en izena emanda duen poloniarren baten-gandik iritsiko da. "Sare sozialean izena eman eta zure profila sortzen duzu. Bertan zure datuak eta zure etxebizitzaren gaineko

datuak sartzen dituzu eta jendea hartzeko dituzun aukerak zehazten dituzu. Ondoren, zuk eskariak egiten dituzu edo zuri eskariak egiten dizkizute jendea etxean hartzeko", esan digu Pavonek.

Arrasatearrak joan den urtean erabili zuen lehen aldiz sare soziala, Aste Santuan Poloniara joateko. Krakovia, Varsovia eta Gdansk hirietan izan zen, besteak beste, eta guztietan *CouchSurfing*-en bitartez lortu zuen ostatu. Orditik hona Arrasaten ere hartu du jendea. Joan den aste bukieran, esaterako, Helsinkiko bi neskek hartu zuten ostatu bere etxean: "Bidaiatzeko beste modu bat da. Adibidez, Arrasatera beste modu batera datozenak sekula ez dira iritsiko Udala bezalako para-je batera edo Anbotora. Ostatura doakoa da, baina, horrez gain, tokian tokiko gidariak dituzu".

HASIERAKO BELDURRAK

Baina nola sentitzen da bat beste herrialde batera bidaiatu eta ezezagun baten etxera iristen denean? "Hasiera baten, arraroa da eta normala da zalantzak eta beldur apur bat izatea, baina berehala konturatzen zara zu bezalako jendea dela. Nik denei aholkatzen diet probatzeko. Oso esperientzia polita da, oso interesgarria".

CouchSurfing-en, gainera, talde asko daude eta euskaldunek ere badute sare propioa: "Baten batek bisita duenean oso ohikoa da beste euskaldun batzuekin ere elkartzea gidari lanak denon artean egiteko".

Udako oporrak gainean ditugu eta *CouchSurfing*-en bitartez herrialde guztietan topatuko dugu etxean gustura asko hartuko gaituen norbait. Probatu egin behar!



'COUCHSURFING' Amaia Pavon arrasatearra Poloniarren izan zen joan den urtean.



ELKARBIZITZA Gdansk herrian ostatu eman zion familiarekin gosaltzen. A. PAVON

ahobero

"Nik uste dut homosexualak, transgenikoak... legalizatuak izan direnean sistemaren aurkako talde izaterari utzi diotela"

Alberto Oliart

> RTVEko presidentea

Hankasartze ederra egin zuen Oliartek Espainiako kongresuan: transexualak transgenikoekin nahastu zituen. Esaldi benetan xelebre galditu zitzaion.

iturri onetik

Espetxe zigorra herriaren alde lan eginez ordezkatzeko araudia Bergaran

Bergarako Udalak orain arte ez zuen horrelako araudi-rik, baina, hainbat eskari jaso dituztenez, egitea erabaki dute. Martitzenean, uztailaren 20an, argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eguaztena ezkerro indarrean dago araudi berria. Udalaren helburua da Bergaran bizi direnen espetxe-zigorrak herriaren alde lan eginda betetzeko aukera ematea.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Bi anai

Arrasate Telebistan ezagutu nituen Inurrategi anaiak, hamazazpi urteko Maider Egües neskatilak egiten zuen elkarrizketa saio bikainean. Uste dut K-2an izandako porrota kontatu zutela eta gogoan dut txundituta utzi ninduela bi anaien heldutasunak eta mendiaren gaineko ikuspegi zentzudunak.

Orain Albertok, Felixen faltan beste bi lagunekin, Broad Peak-en hiru gailurrak kateatu ditu, bide eta marka berriak eginda. Zortzi milakoak pilatzen ibili zirenean ere ganora zerion beti haien jardunari. Eta, behin Albertok marra hura gaindituta, lan teknikoak eta ludikoak burutu ditu, oraingo hau bezala. Fribolitatearen tentazioei eutsi eta ildo egokian irautea, hori izan da atxabaltar anaion estiloa. Kanean gabiltzanontzat ere oso balekoa.

ai, ene!



Patinete gainean bezala, umearekin paseoan

Presaka eta korrika ibiltzen gara beti. Bada, aurrerantzean, umeendako karrotxoarekin ere goazen lekura garaiz iritsiko gara.

www.sarda.es

Goiena.net

Ataria uneoro eguneratuko da albisteekin.

www.goiena.net

Abuztuan ere informatuta!

Goitb
Goiena Telebista

Bi orduan behin albisteak, 11:45etik 23:45era.

52. kanalean